

- gehi (.) cristal Minval, ontza bat	0,85
- gehi, Errege tisanatik, laur hartze	4,05
- gehi hartarako bidaia	0,05
- gehi alabarentzat (.) erremedio, laurdena	1,45
- gehi seigarrena sukargaltzeko uretik	2,05
- gehi, sei ontza mitxoleta xarabe, bitriolu pittin batekin	1,05
	13,35 lib.

Beste esku batez, azpian apotikariaren ordain-baiespena "Maulen, 1710.ko urtarrilaren 30.an, kondu hortaz ordaindua izan naiz".

Ezin irakur daiteken izenpetzea, app-re, apotikari laburpenarekin gaineratzen du (ikus frantsesezkoaren fotokopia).

Eskerrak eman behar dizkiet nere leinuruko eskazi zuhurrei, ezen hau eta beste holako testu zahar jakingarririk gorde diguten, Barkoixe Peillenengan.

Beraz jadanik XVIII. mendean ez ziren marranta handia zeukatenean, etxe erremedioez eta etxe-sendakuntzaz askiesten - dirua zeukatenean - sendagilea ikus eta apotikariaren gana joaiten ziren.

Erremedio horien artean batzu apur bat ilunak dira zer den "Tisane Royale" hori, zer estaltzen du "eau fébrifuge" ur sukar hiltzaile horrek eta "potion cordiale" edo "edari bizkortzaile" delakoak.

Bitrioluaren aipamenak ez gaitu txunditu behar, hamazortzigarren mendean sulfata guztiei halaxen esaten zieten, xarabe edo "sirop" baten egiteko Magnesio, Zink sulfata balia zitezkean edo sulfato organikoaz.

Lur gogorragoan ibiltzeko, lemoiarren erabilera ez tularentzat eta Mitxoleta lorearenak ziurrago zaizkigu. Lehenik *Citrus limonum* Riss Aintziñatean hasirik erabilia bere azido maliko, zitriko, bere potasio ta kaltzio zitratoekin C Bitamina, oligo-gai, flabonak, gatz mineralak eta beste kontutan harturik; naski sukarraren eta mikrobioen aurkako erremedio hauta.

Mitxoleta berriz, *Papaver rhoeas* L. izerdierazteko, ez tularen lasaitzaile, ematzaila, baita beraren espasmuen kontra-koa da, bere alkaloideren bitartez. Biak beti erabiliak dira.



ALBERTO MAGNO ETA BESTE

(Bidave batek kopiatu erregeta bilduma)

Pariseko Bibliothèque nationale delakoan eskuidazkien kalatogoan (celtique basque): 117, celt. b.

SENDAKUNTZA ZAHARREKO ESKUIDAZKI ARGITARAGABEA

Pariseko Nazio Liburutegian, Eskuidazkien Gordategian 117. zbk. daukan bilduma badago, Donapaleuko Bidave baten izena dakar eta Urdiñarbeko hargin baten ex-libris bat "J' appartiens à Andrau Gohaneix maçon à Ordiarp".

Bilduma osoak lau testu dakarzki, Anton Abbadie, Urrüstoikoak, euskaltzale ta liburuzaleak "Recueil de recettes" izena ipiñi dio. Agian Bidave horren eskutik irakurtzen da "finis coronat opus" azkenean, eta urteguna "10 février 1819).

Zati horietatik bat da Landareetaz, beste bi Fisiognomonía ta Konplexionez ta laugarrena, argitaratu nuena "Harri preziosen bertuteak". Laugarren horrek erakutsi zidan bidea eta iturria, horregatik Baionako **Bulletin du Musée Basque** hortan, 74. zbk. eta 127-140 orrialdeetan argitaratu zidatenean, izenburu bezala ipiñi nuen "Alberto Magno euskaraz".

Hemen ondok emango ditugu Fisiognomonía, Konplexionek eta Harri preziosen erabilera sendakuntzan. Urrunago ikusiko dugu, Xarles Videgain-ek egin inkesta batean zenbateraino herrian sartu ziren jakituri horiek, berak bertsolari baten ahotik bilduko baititu - harek ordea "Compost des Bergers" delatik hartuak izan direla eraku-tsi du, baina hemen zuzenean eta testu askoz luzeagoan, Alberto Magno-ren gaztelaniazko lan itzulpena da iturria.

Bidave Donapaleutarrak bere kopia egiten duelarik eta Gohaneix-eri saltzen, aurrean dauka XVIII. mendeko zübero-eraz idatzitako testua eta letra eder batekin aldatzen digu - aldatzen diot zeren bera Zuberotarra ez izanki hitz batzu ez dituen ulertzen eta beste batzu ondo kopiatu ondoren - adibidez **mahats ardu** - benafarreko itxurapean **mahats arno** ematen baidizkigu, halaber "beste", idazten du eta beste behin, ezinbestean **bertze** bere euskalkian bezala. Batzutan **sujet suiet** "manexten" du, eta **jale/iale**.

Txarrena da letra eder horren estalkipean zenbat huts egiten dituen, zati batean jendeen izenak aldatzen dituela, bizpahirur bider emanaz, Misaldo eta Micaldo berdín izen arruntekin; hitzak bukatu gabe uzten ditu eta nola nahi idazten, balsamu, balsamo, baitsamo zati berean eta abar. Hala axalezko huts gehienak gure transkripzioan zuzendu ditugu, jatorrizkoan irakur ditezkenak eta batzuk beren (sic) ekin utzi, zaharkeria bat, euskalkikeria sala balezate ere.

Hizkuntzaren aldetik beharbada Bidave-k kopiatzen duena bi eskutakoa da, zeren **Erremoliaz** diona, **Harri preziosez** diona baino hobea baita eta azken hau "konplexionez" diona baino askoz hobea. Pettiarreko zubereraz da batzutan "hüillen" (Basabürüan hüillan) halere gehienetan **-ian** dipton-go ez da **-in** laburtzen gaurko Pettiar euskararen egiten duen moduan, eta hori XVIII. mendeko seinalea da hala nola **-uan** ek ez baitu oraindik **-un** eman. (Juan, arduan eta abar.) Hizkuntza hori XIX. mende hastepeneko gehienekin konparatuz, oraino zahar usaina gorde du, baina ez da XVII. mendea baino zaharrago Bidave-k begien aurrean eduki duen bildu-

ma, ezen XVII. mendeko hapax bat edo beste irakurtzen baitugu: heure, helgaitz, goharri eta abar.

Hizkuntzak salatzen digu bere castellanismo ta lapurtarismo-rekin ez dela zübereraz izanik ere lehenbiziko egokipena, lehen itzulpena, beraz galdurik dagoen lapurtar itzulpen batez baliatu dela zuberotarra bai XVIII. mendean egin itzulpen batez. Gainera Alberto Magno-ren gaztelaniazko itzulpenean Castillako ta Korteko XVII. mendeko aipamenek, bidea erakusten digute iturrira joaiteko.

Bi ikerketak oso esaldi ilun ta traketsaz lotuak dira:

“Lehen partia gizonaren filosofiatik, fisionomia ezta beste gaizarik baizik zoinüz bat eta artifizius bat zoin ezagützeko flexione huna eta gaitua zer berthüte dien”

1.1. KONPLEXIOEZ

Lehen zatitari geuk **Konplekzioez** izenburua ipiñi genion eta hola jarri hori baitu gaia. Konplekzioen teoria horrek Aintzinatetik XVIII. menderaino europar sendakuntzaz eta osasun jakituriaz jabetu da, Europako hizkuntza gehienei hiztegi berezia emanaz:

bihotz bero / bihotz hotz
bihotz idor /
odol bero / odol hotz
buru bero / buru hotz

Eskuidazki hortan konplekzioen kontraktotasunak irakur genetzazke: hotz = bero, idor (legor) = ümi (heze). Aldatzailearen ezaxolez **ümi, omi, umil** irakur diteke.

Konplekzioez arduratzen diren zortzi kapitulek nola gorputz-organoen konplekzioa ezagut genetzakean, eta zelan holan ikusitako jendearen akatsak, onuneak, ta gaitasunak asma genetzakean.


Lehen lan hau aski laburra da. **Lehen kapitulu**an aurpegiaren kolorea kontutan harturik, jende motak, konplekzioak saillkapen orokor batean sartzen ditu. **Bigarren kapitulu**an jendearen gorpuzkera, gotortasuna ikusi eta haien gorputz kolorea, onak eta txarrak berriro erakusten ditu. **Hirugarren kapitulu**an, bakoitzaren oreka egiten duten lau nolakotasunen anatomia seinaleak zein diren dio. **Laugarren kapitulu**an burmuinaren konplekzioa da. **Bostgarrena**, bihotzarena. **Seigarrena** gibelarena. **Zazpigarrenean**, birrikak aipatzen dira eta **zortzigarrenean**: urdaila.

Kapitulu bakoitzean jende mota bakoitzarentzat bere jateko gogoa, bere loa, bere sentikortasuna, bere arnasegiteko modua, bere hazitzeak aipatzen dira, baita batzutan eskulanerako ganoak, entelektuaren gaitasun nagusiak, nahiz dion batzutan heziketak alda dezakeala izaerak ta sortzeak emandakoa. Orain konplekzioen jakituri hori, ehun bat urteez baztertuxea, ahaztuxea izan ezker, gaurko jakintza nozioz apaindiruk, oraingo morfo-psikologiaren itxurapean berpiztu zaigu, nahiz ez den sendagileei irakatsia herri askotan, psikologoek onartu dute ta Frantzian badakigu langileak hautatzeko orduan jakituri horietaz ere ballatzen direla enpresetako psikologilariak.

Anatomia hiztegia euskaraz ondo emana baldin badago, psikologiazkoa gaskoin maileguz betea da eta hain zuzen geroztik galdu diren “maileguz” beraz testuaren itzultzaileak bazekian bearnesa ere, noski, euskarak salatzen duen

moduan Zuberoako bekaldekoa zen, Pettiarrekoa. Idazki hortan agertzen diren bi latinkada ez dira gehiago ulertzen Zuberoan “zerebelü”, gaur **bürhün, bürün** esaten baita burmuin adierazteko, berdin **trabailü**, orain beti **lan** esaten da, horrek eta beste linguistika oharrek erakusten digute idazkia 1819. urtean aldatu bada, egilea hemezortzigarren mendeko gizona zela, zaharturik XIX. mendera iritxi zena, agian.

Jatorrizko gaztelania liburua ta lapurdierazko lehen itzulpena aurkitu arte, hau dugu salbatu dena, ez du M. Dasantzaren suertea izan: harek ikusi baitzuen bere errezeta bilduma, askotan kopiaturik eta Iparraldeko euskalki ta azpi-euskalki askotara emana. Bai, lau testu horiekin ikusten dugu, nahiz jende sendakuntza, nahiz abere-sendakuntzan, liburuen eskazian, euskarazko eskuidazkiak kurritzen zirela etxez-etxe, herri-herri iparraldean, lan horien jakituria, maiz, zaharkitua izan arren, herri-sendakuntzaren eta eskola-sendakuntzaren arteko altxorra bilakatzen zen.



1.11. CORPUS (Transkripzioa)

“KONPLEKZIOEZ”

(Lehen orrialdea) Lehen partia gizonaren filosofiatik idokia fisionomia ezta beste gaizarik baizik zoinüz bat eta artifizius bat zoin ezagützeko flexione huna eta gaitua zer berthüte dien:

Lehen kapitulia: **Zointan erakusten beitu nurk zer dien begitarteko kolorian.**

Nurk ere beitu (sic) begitarteko koloria xurpil edo plomu kolore, markatzen konplexione hotza; koloria gorri eta bizi balindadu eta zombait xurikeriareki, markatzen du konplexio-nera beroa; begitarteko koloria nurk ere beitu xuri eta mehats eta enkarnatu, seinalatzen du konplexione huna; kolore beltzaranak bethiere konplexione huna; begitarteko koloria nurk ere beitu hori markatzen du naturaleza (sic) pezia.

Kapitulu bigerrena: **Ezagutzeko bere kolorian eta aragiz gizen dena** eta ahul dena zer kondizione (2. orrialdea) dien. Nur ere baita (sic) aragiz eta larria xuri eta lekhu komenientetan gorri markakoa, kolerik eta naturalki dena, halakoak bere korpitez, aragiz, mehats, koloria gris, bilhoa lis eta gorri, inklinatu nahastera doala eta bethi aharrara inbeia.

Nur ere beita haragiz gizen, begiak urdin, bilhoa lis naturalki ohi dira atrebitu bena ahalkor eta khantoren eta musiken adiskide eta ezenziaren eta liberal miserikordius eta dantzan eta banketetan laket.

Nurk ere beitu plomu kolore halakoak hobi (ohi?) dira triste eta pezü gutiegi, jale gaisto, halakoek amets tristerik egiten die, halakoek edo goratik erortzen direla edo zombait zezenen ihesi doatzala beti zerbait halako uduri.

Nurk ere beitu korpitza, ez ahul, ez gizen, ez beltz, ez xuri, halakoak (3. orr.) ohi oben (sic) triste, halakoa(k) ohi dira loti, gaizer berant orhitzale eta kadius. Gaisto haien ametsak beti hurian eta ganberetan ohi dira, nurk ere beita (sic) laster izertzale haek konplexionia hotz duke eta idor. Bidian aisa dabilanak duke konplexione huna; korpitza pezü eta pezüki ibiltzen umur (sic) gizenez kargaturik dateke.

Kapitulu hirugerrena: **laur kalitateen seiñaliak.**

Nurk ere beitu konplexionia bero, naturalki untsa hazten eta fitez handitzen eta haur direnien gizen dira eta handitzeari mehasten, halakoak ohi dira azkar eta botz hun eta untsa jaten eta hobeki dijestitzen halakoa ohi hanitz dine eta horrek animus eta koraius; konplexione hotza dienak nekez hazten dirade eta (4. orr.) berant, jale gaisto, apetitu guti, nekez hatsa, flaku, koloria duke xuri edo rosatu, bilhoak lüze eta lis, trailla guti aski agudo eta enjenus.

Konplexione umil (sic) dienak aragiak bero dutu aragiak barna, arhin dira bena indar guti gaiski, lokale hanitzetan, nigar egile, bilo guti eta mehats bena abil dirade gaiza difikultus oren ikasteko.

Konplexione nurk ere beitu aspre halakoak azkar dira, trailla handi konstant eta jenturak ageri, jaten arrazorableki, bilhoa azkar, horats,. Nurk ere beitu laur kalitatiak proporzio honeko dirade trenpu huneko osagarritsu jaten eta edaten apetitu onareki (sic), ontsa lotzen, traillian izeretan, mirakulu estomaka kargatzen, halakoak koloria gorri ohi du eta (5. orr.) haren bost sasoiak (sic) zelebratzen dirateke.

Kapitulu laugarrena (sic): **Konplexionaren zelebrien seiñaliak.**

Nurk ere beitu konplexionaren zelebria bero, bilo hanitz eta azkar, bere arrazoinetan prunt, bigilant, pensamendietan gora eta beti zerbait gaiza goraren esperantzan egon (ohi da).

Nurk ere beitu konplexionaren zelebria umil, aragia bera duke eta lan egile gaisto eta bera, flaku, bilo hanitz sudurretan, flema hanitz, burian minzale, odolaren danjerus, ez hanbat zaharzale, lotsatzen ehi bena pietatus eta bihotz bera.

Nurk ere beitu konplexionaren zelebria (sic) hotz, halakoak dira entelegu gogor eta enjenu gutitan kargatuko, ez hanbat ontsa ikusten, bere deseinetan azkar, abil eta xotil, apetitu bat liberal

Nurk ere beitu (sic) konplexione idorra, odol zelebria(n), bista hun dukie (sic) eta biloa fitez xuritzen, soxoiltzen, burian minzale, enjenu guti.

Kapitulu (sic) bostgarrena: **Bihotzeko konplexionaren seiñaliak.**

Bihotzeko konplexionia bero boltsia arhin eta bularrak eder, atrebitu bere obretan eta mintzoa aspre, abarizius, eta betiere jateko apetitu huna. Nurk ere beitu bihotzeko konplexione hotz, berantiar duke poltsia eta bekan burarrak (sic) bilo gabe eta bera hotz, apetitu gabe, indar gutiago, botza flaku, bere obretan berantiar, kondizionia aspre, jatia gaisto eta edaten berant, gaiza gutik espaniatzen. Nurk ere beitu bihotzeko konplexionia umil halakoek bilo franko dukie sortzen, hanitz eta (7. orr.) fite, salbu bulharretan haragiak bera, apiko bat gizen, eta beltzaran, larria bertan gizenzale, gaizer guti orhitzale trailla flako.

Nurk bihotzeko konplexionia idor harek boltsia gogor duke eta aragiz ahul, bi(l)ok gogor eta aspre.

Kapitulu seigarrena: **Gibelaren konplexionaren seiñaliak.**

Nurk ere beitu gibeleraietako edo gibeieko konplexionia bero begitartia gogor duke, kafiak handi, berak azkar, zointan ha(g)in guti beitie ahoetan eta bianda berhezak eta be-roak damu egiten beitere bere naturalezaz berala (sic) erratzen beitu eta gor'errandatzen eta erdizpian bilho hanitz sortzen.

Nurk ere beitu gibeleraietan konplexionia hotz halakoak ohi dirade flaku, flan hanitz, kointa, ardurathu egiten beitie eta ardura sudurriala oihala, zoinek pixa xuri (8.orr.) beitie eta aizez beti beterik dirade.

Nurk ere beitu errainetan konplexionia omi (sic) odola die thurbuts. Korpitza gizenberak omen sabelak hardura (sic) hantzen beitira eta hanitzetan begitarteko koloria hori dukie.

Nurk ere beitu errai(ne)tako konplexionia idor harek dukiela odol guti korpitzian berak flaku dijestitzen nekez kolore guti begitartian.

Zortzigarren kapitulia: **Estomakeko seiñaliak.**

Nurk ere beitu estomaka bero dijestitzen dirade untsa eta apetitu huna jateko eta edateko eta begietan, eta burian ardura min.

Nurk ere beitu estomaka hotz nekez dijestitzen dira, apetitua flaku, nekez gosetzen eta egarrizten dirade, begietako eta buruko minaren eztrade sjet.

Nurk ere beitu estomakeko konplex(ione)a (9. orr.), umi(l) guti edaten die ahotan hur franko eta kuderetan ere; flema ere bai ardura; estomaketan minzale eta buria burhunguru.

Nork ere beitu estomakeko konplekzioea idor, mihia dūke (.) lephoa mehe eta ardūra egarri.

III.I. FISIOGNOMONIAZ

Bigarren eskuidazki honi **Fisiognomoniaz** izenburua jarri diot. Hemen medikuntzatik apur bat urruntzen gara, giza itxuratik, jendeen psikologiaren ezagutzeko. Aurrekoa baino sakonagoa izango den morfopsikologia sailkapen batera eroango gaitu. Jakintza hortan - herri mailean beti bizirik iraun duen hortan - ta berriro modan dagoen ezker jakintza oinarriak hartuta, bi ikuspegi daude aintziñako Otoskopia zeritzaion hortan ta gaur Prosopologia diogun horrekin. Batarentzat aurpegia bi zati ditu: sudurretik goiti **gogamenaren kalitateak** sala letzazkete buruko itxurek eta egiturek, handik behera **senaren ezaugarriak**; besteentzat, ordea, euskaldunen artean beharbada hala da - aurpegian hirur atal ikusten dute: lehena giza asmaketaren adaptapenarena, biloen, buruko ileen mugatik sudurreraino (euskaraz **belarra, bekokia**), gero idealzaletasuna, sentimena, maitamena salatzen duen zatia sudurretik, gaineko ezpainera eta begien arte hori matraileraino (euskaraz **begitartea** edo **aurpegia**), azkenik goi-ezpainetatik okotz puntaraino (euskara, **musu** edo **mutur**)

Holako testuak bakan izanki, galkorrek dira, gehienak galdutako egin dira eta euskaraz argitaratzeko xederik, ez dirurik, ez zen ezker, XIX mendeko liburuzale, idatzale batzu izan ez balira ez genuke horrenbeste. Idazki horrek bestalde, zaharrago baten itzulpena dela erakusten du eta gaztelania kutsuko hitzek XVII. mendeko eragina erakusten digute: **presonitū** "presumido" **animo** "animo", **diskordia** "discordia", **desdenatū** "desdeñado", **fortūna** "fortuna" (adierarazi zaharraz), **flako** "flaco", **tirano** "tirano", **matxo** "macho", **desgrazia** "desgracia", **injenū** "injenio", ta orozgain **uanaglorios** zuberotar ez den hitza "uanaglorioso" gaztelania zaharreen eta Axularren "**Geroan**", antz hortako hitza da **vanagloria**, hamazazpigarren mendean.

Gaztelaniatikako Alberto Magno-ren itzulpena ez zen lehen aldian zubereraz egin zeren testuan, lapurdierazko hitz batzu geratu baitira hala nola, **hori** (kolorea, holli z.), **gorana**(?), **sorbalda** (soin z.), **soxoil** (xoil z.) **on**. Gaztelaniatzko, **naturaleza**, **kapitulo**, **espalda** eta Felipe II.ren aipamenak, iturriaren erakusgarriak direlarik.

Zuberotar testuaren laburpen bat eman gogo dut - gogoan edukitzen dudala oraindik itxaropena lapurdierazko lehen-bizikoz idatzitakoa, egun batez aurkituko dela, baina dakigularik hemeretzigarren mendean holako testuak, batzutan, arratoinek janak, besteetan marmelada ontziak tapatzen, edota su pizten, arka zulo baten estaltzen, zapeta barruan berogarri erabiltzen zirela, pipiak jan ez zituenean, eskerrak eman behar urrungo Pariseko Bibliothèque Nationale-ari, geu ez baigara gai izan ez lehen ez orain gure Herrian holako baten edukitzeko. Gero bilatzen dugun lapurtar idazki hori - aski zaharra baldin bada, ez ote zuten jendeek berek erre, uste baitzuten hil baten idazkiak zoritxarra ekar zezakeala edo, De Lancre-ren urteetan liburudun batzu erreak izan baitziren.

Giza gorputzaren ikuspegia idazlan hortan ez da Etxepare, Oihenarte, Mirande-ren amoriozko olerkietakoaz

bestelako, eta XVII ta XVIII. menteko maitasun kantuetan berdintsua da, **Gure Herria**-n 1963.an egin genuen ikerlan batean erakutsi genuen bezala. Nahiz horitasuna literaturan goraiapatua izan, giza-emakume ile-horiez ez da gehiegi fidatzen, ez eta gazteegi urdinu, zuritu ile-dunari, ile-gorriari ere kasu egin behar da. Gero kolore xuri gorriak (ezpain, matrail gorri) baloratuak dira, aldiz larru hori ta grisak osasun ga-bearen ezaugarriak omen liteke.

Hona hogeitazazpi ataletako idazlana

Lehen atala: Ileak

Kontutan hartzen direnak, kolorea, ugaritasuna, leuntasun kizkurtasun. Leun ta xehe, karakter apal, baketsu, bel-durtia erakusten. Ile kizkurra "bilo üzürra", kemena, gotortasuna, baina maltzurkeria ere; berdin **gizon bilo gorri**, eta **emazte bilo horia**-rekin jarramon egin behar. Gizon bilo horia berriz, ez da tratu errezekoa.

Bigarren atala: Giza-emakumeen bekokiaz

Itxuraren arauera sailkatuak dira (laun, borobil, herstu, zabal) eta larruaren arauera (zimurtua, leguna). Itxura ezezkorra, bekoki laun zimurgabea, eta leuna da.

Hirugarren atala: Betezpalak

Aurpegi kiñutara irixten gara, - Primaten artean oso esankorrek - eta hor oharrak onargarriago iruditzen zaizkigu; esate baterako gezurra diotenean edo gaiztakeria bat gertutzen dutenak, betezpalak apaltzen, begiak beheztatzen dutenean; aldiz begi mugikorrek dituztenak harrotasun ta bihoztoitasuna erakusten dutela, batzutan, sinets liteke.

Laugarren atala: Bepuruak eta begiak

Beren luzetasunak kontatzenago du, beren igikortasunak baino eta osagai ezezkorrak baiezkorrekin nahastu egiten dira hor.

Beren neurriak garrantzia du; begi zabalduak akats asko daukate (arrokeria, bekaizkeria, ahuleria, oroipen motza eta abar.) Begiak sartuak eta so zorrotzekoak ez dira hobe (maltzurkeria, tradikeria, gezurra, ankerkeria, trufa eta inganioa salatzen dute); begi txipi borobilak jende sineskor ta atzera egile, oroimen motzeko maltzurak direla fama dute; begi igikorregiek maltzurkeria, infidelitasuna, diskordiarako joera erakusten; begi finkoek truka, begi geldituzan, lealtasuna, entelegua, gizontasuna.

Begiaren koloreak ez du axollik, baina beginini distiratsua handinahia, faltsukeria, traidorekeria eta mesfidantza. Beginini argia; jende barnekoia, txaloa, baina likitsa, haragikeriari emana. Begi beltzak, herabeti eta ez ugari dela jendea erakusten. Begi gorri nigartiak gaiztakeria, harrokeria, desleialkeria, zurikeria gezurra ta ustelkeria salatzen.

Bostgarren atala: Sudurraz

Hemen luzetasuna, loditasuna, ondoa eta punta, kolorea eta bilotsu izatea, sudur ziloen handitasuna kontutan hartzen dira. Hemen euskaldunei egoizten zaien sudur luzea - gaskoin eta kastellaneetan ere idoroten dena - goraiapemengai da:

luze, mehe ausartzia, xotiltasun, konzentzia.

luze, gora landatua, punta beheralde: zogitasun, lealtasun, eginbidetsudunluze, hondoan mehe: urguri, ixil, maitagarri, eskuzabal.

Sudur laburra berriz flaku, beldurti; sudur gorria, zeken, anker, langile.

Seigarren atala: Ahoaz

Osagai. Ezaugarriak, luzetasuna, hatsa (arnasa) loditasun eta kolorea ezpainentzat. Ahoa gora ta handi dutenak, erasokor; ahoa txipi herabeti, ahul, izkutu; hats ona osasun ezaugarri da, eta txarra gibelesko minarena. Gorputzaren zati askorentzat bezala, organuaren mehetasun hortarik ateratzen da gogoaren fintasuna, alderantziz loditasunak larrikeria, arruntkeria edo sineskorkeria erakusten; halaz ere ezpain lodiak, gorri baldin badira señaile on dirade. Ezpain bata beste baino lodiago denean jendea xinplea da.

Zazpigarren atala: Hortzez

Aztertzen direnak: fintasun, loditasun, nola landatuak diren haginobietan, eta naski hagin xehedunak karakter goxoa dauka. Hagin lauki, sendoak, kemen eta adin haundi batera irixteko ezaugarriak dira, baita erakusten gauza ederrren maitasuna ere.

Zortzigarren atala: Mingainaz (Mihiaz)

Organu hau metonimikoki hartua, hitzegitearen eta hitzederraren aipatzeko emana da. Zuhurrak hitz gutxi.

Bederatzigarren atala: Abotsaz (Mintzoaz)

Abots lodia harrokeria eta hasarre señaile, abots meheak ez du aipamenik merezi; abots gorak (altuak), ausartzia, eta abots sendoak entelegua, adimena salatzen; abots ikara, dardara, jende herabeti, mesfidakor, bildurti, malgukeriaren ezaugarriak. Abots baketsuak, bildurra ala zekentasuna sala lezake.

Hamargarren atala: Parrez (Erriez)

Zuhurrak parre gutxi, maltzurak errez, zozoa parre haundia.

Hamaikagarren atala: Okotzaz (Bidarraz)

Okotz zorrotza ausartziaren ezaugarri, erasokor, pizkor señaile; halere okotz hori mehegi ez baldin bada, bihotz oneko eta talentu haundiko jendea da; okotz sarde edo gizenak baketsua talentu gutxikoa salatzen.

Hamabigarren atala: Bizkarreko biloez

Biloak ondo lerrokatuak badira, kemena, indarzaletasuna, eta haragikeria salatzen ..Hutsunez baten atzetik eta atal berdinean aho inguruko ileak aipatzen dira, eta andereek ez dituztenean konplexio ona salatzen, baita sineskor, baketsu herabeti, bildurti dira holakoak ere (Andere gehienak ez?).

Hamahirugarren kapituluak: Aurpegiaren fisionomiaz "Begitarteko fisionomiaz"

Ikusten denez aldatzaileak ez darabila ez **fisiolomia** hitz herrikoia ez gaurko **filosomia**; hona gorputzaren gizentasunetik, koloretik, itxuratik ondorioztatzen diren aiurriak:

- gorri, lodi: alai, handigura, bildurti, ixil, aspergarri.
- mehe: langile, otoitzale, argi, aldagaitz, dotore.
- txiki, borobil: izuti, buru mehe, siniskor, ez amorosten.
- luzea: ahul, harro, lotsagabe, borrokazale.
- pollit eta adimentsu: talentu, oroimen on baina siniskor.
- hori eta gaizto: konplexio txarra, osasun eskaxa, mal-

tzur, inganazale, harro, traidore, gezurti, zeken, bekaitz, guri eta handinahi.

- gorri: konplexio ona, argia, baina aldakorra.

Hamalaugarren kapituluak: Beharriez

Neurria, itxura, gizentasuna eta kolorea kontutan hartzen.

- beharri handi gizenak: kalitate gabeko norbait.

- txiki eta mehe: bertute guziendun.

- beharri luze: lotsagabe, alfer, begi luzeegia.

Beharri-motzak ez dira batere aipatzen.

Hamabostgarren kapituluak: Buruaz

Bere itxura, neurrien arauera, akats eta onumeak nahasketan datoz

- buru handi borobila: onena

- buru txiki zorrotza: maltzurkeria eta xotiltasuna salatzen (azeri burua).

Anatomiaaren hiztegia gehien bat zuberotarra da eta Petiarrekoa (Zuberoako bekaldekoak), euskalkiaren mota hortako hitzak hauek dira

bephörü: bepuru

belar : bekoki, kopeta, boronte (Basabürüan)

bidar : okotz

Eta züberera guztian bezala

aragi : haragi

azpi-bürü : izterondo

belhañ : belaut

bürü : buru

eskü : esku

khorpitz : gorputz

saihets-ezü: saihets-hezur

südür : sudur

Bestelan euskara batuko hitz berdinak, guti edo aski berdinak: aho, bilo, begi, beharri, beso, betezpal, begitarte, bizkar, bular, eri, (atz) hortz, lepo, mihi, sabel.


Deskribapen hau, Aintziñatetik Erdi Haroarengaindi, gure egunetara iritxi zaigu eta beharbada egutegiaren eta armanakeen bidez hedatu. Oraindikan sailkapen horiek jendeen gogoan balio dute, hala nola itxura politta eta finaren balorapena alde batetik eta itxura trakets, larri, latzen gutiezipena bestalde; gero azalarena, gogoari eratxekitzea ez zaigu onargarria iruditzen, baina bizitza darakusgu hala gertatzen dela.

Geronek badugu Lizeotan bildutakoaren esperentziaren oiroitzapen, bai frantses Gymnasium horietan, itxura ere ikasleen sailkatzeko darabilate batzuek; ondo gogoan dugu Pariseko neska lizeo batean, bere marimotiko itxura ta aurpegi "arrunta" gatik "Teknika ikasteko burua dauka" esan zutela urte azkeneko erabakia hartu behar izan zenean eta beste batez - bi urte zaharragoa eta nota txarragoekin - "zer fintasuna daukan neskatila horrek" "Bai eslaboen xarma dauka" "Beste klasera aprobatu behar dugu ez".

Gizonezkoek ondoriozko elementuak, jatorrizkoekin nahasi ohi dituzte; egia da Aintzinateko lan sailkatzean baze-goela esku-lana eta buru-lana eta naski giza-makina ziren esklabo giharre lodidunek ezin zituztela bizierazten ziren giroan, ez gorputzean ez gogoan fintasun asko bil. Aita Axularrek bere **Gero**-an alferrak ditu eskuak zuri eta langile bertutetsuak larru gogor; bestalde kleroak, eskribanuek, giza libreak lan xotilak, ariñak eginaz, gorputzean ardiets dezake-

te esklaboei eskaz zaien mehetasun, eta edertasuna. Aintzinateko iturrien iluntasunak ezin ditugu denak argitu, urrik ere, baina Erromako esklabo zenbait beren herrian, esku zuridun izan ziren, eta aitonen seme, espe hartuak izan arte, beraz morfologiaren aukera hori, ez zen aurretik beti egiten, baina praktikak zuen sortzen.

Idazki hortan, gaurko baserriar ideologiaren alderantziz, loditasuna ez da osasun señaile, baina bizioen ikurra. Jadanik Aintzinateko filosofo batzuen eta kristau aszeta batzuen artean ustekizun hori bazen aspaldidanik. Gure idazleak, ordea, (Alberto Magno-k ala aldatzaileak) karakter bakoitzarentzat saiatzeko bertuteak eta bizioak neurritz nahasten, eta jaiotzak emandako tipoaren aldatzeko eginkizuna uzten dio gizonari.



II.II. Corpus FISIIGNOMONIAZ (transkripzioa)

II. Fisiognomoniaz.

Hemen hasten da gizonaren fisionomia, gizonaren korpitzeko menbrek zer signifikatzen dien.

Lehen kapitulia: **Biloez.**

Nork ere beittütü bürüko biloak leün eta mehats natüralki dira lotsor, bakezko, indarrez güti, manko, ümil gaitza.

Nork ere beittü biloa azkar eta üzür eta labür, markatzen dü azkar direla, eta segur koraius, holakoak ohi dirade inkiet, gezürti, inganazale bena **fortuna labori** eta hun. Gizon bilo horia, gogor da enjenuatzeko eta gizontarzünian sinple (10. orr.) eta emazte bilo horia ahalkegabe eta atrebitü.

Nork ere beittü bilo hanitz eta üsü, sineskor eta bere hitzak berant konplitzen eta memoria flakü, kudizia hanitz eta fortuna güti.

Nork ere beittü biloa gorri natüralki dira inbidius, superbius, gaisto inganazale bena Jinkoak orenen gañetik dominatzen dü, zointan diferent egin beittitzake.

Nork ere beittü gorraileta eta osoki gorri, halakoak dira beittütus, bakezko, leial eta diskret, kostüma hunetako bena desgrazia hanitzendako suiet.

Nork ere beittü biloa xuri hüillant' eta ez txit xuri, kondizione huna düke halakoak abil dira eta gaiza orotako, bena beldürti, bihotz gabe eta fortuna güti. Haur gaztiak biloa xuri badü (11. orr.) eta ahalke gabe jalkhitzen dirade eta atrebitü haurrean eta emaztetara injogi.

Bigerren kapitulia: **Gizonaren eta emaztiaren belarraz.**

Nork ere beittü belarra gora liberal dira halakoak bere adiskide eta ezagümentako alegera eta bertütetsü eta entelegü huna.

Nork ere beittü belarra plain, lis eta üzürdüra gabe, sinple dirade eta sineskor, aharrareki laket.

Nork ere beittü belarra bazterretara mehar natüralki sinple dirade eta sineskor.

Nork ere beittü belarra biribil saihetsetan bilo güti enjenü hunetako dira, entelegia klar, koraius eta bihoztöi eta atrebitü eta gaiza ederretarat kudizius eta ohore gose.

Nork ere beittü belarra üzür eta erdian kopa ahalge gabe dira eta (12. orr.), bihotz handi bena fortuna güti.

Nork ere beittü belarra propi eta zeler, ez txipi, ez handi, entelegü huna düke eta bera kapable.

Hirurgerren kapitüllaz: **Betezpalez.**

Nork ere beittütü betezpalak arkü eta üsü erabilten gora behera signifikatzen dü, superbius, koraius, uanaglorios, atrebitü eta kürios.

Nork ere beittü behera edo egiten norbaiteki mintzo denian edo ihuri so egiten denian seinalatzen düke, malezius eta traidore, gezürti, abarizios, auher beno segret.

Nork ere beittütü betezpalak klar eta bilo güti natüralki dire sinple traillaari gaisto eta konpan(i)etan bakezko.

Nork ere beittütü betezpalak gorderik (13. orr.) algarren hüillen seiñalatzen dü, ahalke gabe eta auher, jeloskor, inbidios eta büfüdios.

Nork ere beittü, biloak bürükoak lüze argant eta ahalkegabe.

Nork ere beittütü biloak bepürietakoak labür eta xurpil gorri, abil dira hanitz gaizetan eta güti traillaari dira eta kanbiakor huniala eta gaistoala.

Nork ere beittü bepürietako biloen artia hersi kudizios dira, zühür eta abil eta sekret bena zoinbait lekhütan inbidios eta fortuna güti.

Nork ere beittü bilo hunik bepürietan, pentsamendü hanitz eta malezia eta mirakülüz botza hun eta mintzoa (ere).

Laugerren kapitülia: **Begiez.**

Nork ere beittü(tü) begiak handi eta gizen eta zabal idekiten, natüralki auher dira, atrebitü, segret, inbidius zoin lekütan (a)halkor, memoria (14. orr.) flakü, gaiza güti jakin, kudizios eta senoria handi.

Nork ere beittütü begiak barna kasi gorderik, bista zorrotz die eta hun bena berak jeloskor, maleziuz, traidore, hoina

lúze, kostüma gaistotako, memoria huna, gezürti, atrebitü, superbius, krüdel, trüfaler, inganazale. Jinkoak libra ditzake hargati(k) kondizione gaisto hoietarik.

Nork ere begiak goiherra beitütü, bista labür dü, enjenü gütitako eta indiskret bena ahalkor eta liberal eta konzentzia huna.

Nurk ere beitütü bephüriak ahal, bista zorrotz dü eta natüraliki malezius dira ta fürfüdius bena segret eta ontsa mintzatzen jakin.

Nork ere beitütü begiak txipi eta biribil komplex(ione) flakua enjenu güti eta simple eta ahalkor, sineskor bena liberal eta fortüna güti.

Nork ere beitütü begi niniak (15. orr.) pintatürik, horat hunat so daudiela eta harat edo bazterrerat so egiten beitie animo handitako ohi dira eta paillar, inbidius, gaiza ederretan banitatetsü eta gezürti eta odol isurle.

Nork ere beitütü begi niniak dardehazari eta argi, presonitü dira eta faltsü eta traidore, berant sinhetszale.

Nork ere beitütü begi niniak xuri natüraliki simple dira, bano lüxürios bena segret.

Nork ere beitütü begi niniak beltz ordenariz lotsor dira eta ez diskret.

Nork ere beitütü begiak ejer hara huna aisa erabilten markatzen du heina gaistoa diela eta malizios, fidelitate güti, diskordia pitzale eta aharrara eta ebastera inklinatü.

Nork ere beitütü begiak ükürü markatzen dü malezios. Nork ere beitütü begiak gorri, natüraliki nigarzü (sic) airus dira, superbius, dena gaisto, krüdel, zibil, ahalke, gezürti (16. orr.), desleial, inganazale bena berhala konpazione eta miserikordia egitera prest.

Nork ere beitütü begiak biribil idiak bezala simple dira eta malezios memoria güti, entelegü lüze.

Nork ere beitütü arrazonable eta beltzaran apürtobat bakezko dira, matxo eta leial, egiazko entelegü huna eta handia eta doktrina huna..

Bostgerren artiküliaz: **Südürraz.**

Südürak nork ere lüzarana eta mehats (beitü) atrebitü dira kargütan düien (sic) gaizaz arranküratsü, konbertitzen aisa norat nahi.

Nork ere beitü südürra lüze eta gora phünta apal, zühür dira eta señale leial eta zerbützü egile.

Südürra labür diena lotsor eta flakü da (sic).

Nork ere beitü südür pünta goiti doblatürik, bano dira eta fortüna güti.

Nork ere beitü südür pünta zorrotz (17. orr.) eta beste gaindian gizen kolerik dira, aharatzen aisa, desdenatü, malezus eta memoria huna.

Nork ere beitü südürra lüze eta piala mehe, atre dira, liberal, diskret eta maitagarri.

Nork ere baitü südürra gorri natüraliki abarizios dira, krüdel, enjenü gogor.

Nork ere beitü südürra püntala plain eta xabal bakezko dirade, mantso, leial, segret; enjenü hunetako, doktrina huneko.

Nork ere beitü südür pünta bilozü eta südür xiloetan aragi hanitz edo gizen eta begien artian südürra mehe kondizione hunetako dira.

Nork ere beitütü südür xiloak gora eta gizen traidore dira, faltsü (18. orr.) enjenü gogor abarizius eta lüxürios.

Seigerren kapitüliaz: **ahoaz.**

Ahoa nork ere beitü handi eta gora natüraliki ahalkegabe dira, atrebitü mardailler, dragon, abarizius, gerlaren adiskide.

Nork ere beitü ahoa txipi banoesko dira, mantso, modest, leial, segret eta ahalkor.

Nork ere beitü hatsa gaisto señalatzen dü gibela gastatürik diela halakoak ohi dirade bano indiskret, sinheskor eta entelegü güti.

Nork ere beitü betiere hatsa huna markatzen dü osagarritsü dela barneti halakoak dira diskreki mintzazale.

Nork ere beitütü ezpañak lodi eta kanporat ützüli, halakoak gaiza gütiri oritzen dira, sinheskor eta simple gaiza orotan.

Nork ere beitütü ezpañak mehats eta kanporat jalkirik halakoak diskret dira, xüxen, segret, enjenü huna.

Nork ere beitü ezpañ gorri eta lodi (19. orr.) beno mehatsago kondizione huna ohi dira halakoak bena kanbiakor dira hala ere huntarzünera prestago gaitziala beno.

Nork ere beitü ezpañ bata gizenago bestia beno, markatzen diskret beno simpleago, fortüna güti, entelegia berant eta enjenü gogor.

Zazpigerren kapitüliaz: **Hortzez.**

Nork ere beitü hortzak (sic) xehe eta flakü etserzionetan klar eta labür natüraliki lotsor dira /bolontrus bigilant bena inbidius eta adenat/ (marra ezabatua), segret mantso, fidel, kanbiakor eta bizia labür.

Nork ere beitütü (sic) hortzak lodi eta zabal simple ohi dira eta gizatarzün güti.

Nork ere beitütü hortzak oker eta desigual, batak handi bestiak txipi enjenus dira, bolontrus, bijilant bena inbidius eta adenat (ikus gorago).

Nork ere beitütü ortzak (sic) azkar eta karratü, koraius ohi dira eta beren büriaz presonitü, animo handitako, berri karreiari, gaiza ederrak oro bere nahi eta (20. orr.) halakoak zahartzen ohi dira.

Nork ere beitütü hortzak azkar eta karratü tenpora (sic) lüzez bizitzen ohi dira zointan halakoak diskret dira konstant azkar eta jale huna (sic).

Zortzigerren kapitüliaz: **mihiaz.**

Nork ere mihia mintzatzer prest, bariabile dira gaizetan eta indiskret.

Nork ere beitü mihia mintzatzer berantkor eta aspre, zühür dira eta abil ontsa haziak, bano, malezios, traidore eta krüdel.

Nork ere beitü mihia mehats, enjenus dira, abil eta sinheskor.

Bederatzügerren kapitüliaz: **Mintzoaz.**

Nork ere beitü mintzoa lodi, apürtobat natüraliki, atrebitü eta azkar, superbius, dragon eta kolerik.

Nurk ere beitü mintzoa mehe edo flakü (21. orr.).

Nork ere beitü mintzoa klar eta ontsa despeditzen eta sonü huna, diskret dira eta egizko injenus eta glorius.

Nork ere beitü botza ferheme kantatzian, bero dira, entelegatü, enjenus eta bortitz.

Nork ere beitu botza ikara jeloskor dira eta lotsor, auher.

Nork ere beitu botza gora kantatzian atrebitu dira eta bere(n) deseinarekin ontsa jiten.

Nork ere beitu botza bortitz eta bazterrak ihardesten gizon lotsorrek dira, indiskret eta bano.

Nork ere beitu botza anple eta ejer entelegatzen aisa bakezko dira segret, lotsor eta abarizius.

Kapitulü hamargarrena: **Erriez.**

Nork ere beitu erriaz (sic) eta karkaza handirik egiten, natüralki simple dira, bano, nagi, ez hanbat segret.

Nork ere erri güti egiten beitu edo berant, jakintsü, segret, leia(!) eta enjenü hunetako (da).

(22. orr.) Nork ere aisa erri egiten beitu eta büria erriareki okertzen edo ahoa, ezpañak, faltsü dira, arrogant, traidore, airus eta sineskor.

Hamekagarren (sic) kapitüllaz: **Bidarraz.**

Nork ere beitu bidarra gizen eta haragitsü bakezko dira, segret, leial eta enjenü güti. Nork ere beitu bidarra zorrotz eta apürtobat haragitsü enjenu (sic) hunetako dira, bihotz handitako edo pensamentü gora.

Nork ere beitu bidarra erditürrik, partitürrik, bakezko dira, segret eta zerbütü egile.

Nork ere beitu bidarra zorrotz eta aragi güti, ahalkegabe dira atrebitü sanatsü eta gerlaren adiskide.

Hamabigerren kapitülia: **Bizkarreko biloez.**

Nork ere beitu bizkarreko biloak ontsa konposatürrik, natüralki bortitz dira eta kondizione hun eta bero dira zoin (23. orr.) haboro kointan luxurius beti bihoztoi, emazte zoinnek ere beitu bilo güti eta xahü ahoaren üngürünetan konplexione huna die beldürti eta ahalkor, mantso, bakezko eta obedient.

Hamahirurgerren kapitülia: **Begitarteko fisionomiaz.**

Nork ere beitu begitartia gorana eta gizen ümilki, lotsor dira, alagera, liberal, segret bena memoria flakü eta importun, presonitü.

Nork ere beitu begitartia ahül traillari dira eta konstant airus eta pietatus eta entelegü hunetako.

Nork ere beitu begitartia txipi eta biribil simple dira, flakü, lotsor eta amorio gütitako.

Nork ere beitu begitartia lüze ordenaritik kanpo eta ahül ahalkegabe dira mihiz beno obraz simple, superbis ohi dira, eta nausa egile.

Nork ere beitu begitartia arrazonable eta propi, gizon egiazkoak, enjenus (24. orr.) sinheskor eta memoria huna.

Nork ere beitu koloria hori eta gaisto, osagarri güti düke eta konplexione gaisto düke eta berak kondizione gaisto zeren malezius ohi dira, inganazale, superbis, traidore, gezürti, abarizios, inbidius, bano eta presonitü.

Nork ere beitu koloria gorri, konplexione huna düke eta entelegü huna bena kanbiakor.

Hamalagerren kapitülia: **Beharriez.**

Nork ere beharriak handi eta gizen eta muldegaitz, natüralki simple dira, auher eta injenü güti, memoria gaisto, kapabletarzün güti.

Nork ere beitu beharriak txipi eta mehats, enjenü hunetako dira entelegü da (sic) prudent eta segret, bakezko, onest, xahü eta ahalkor.

Nork ere beitu beharriak apüto bat lüze, atrebitü dira, ahalkegabe, indiskret eta traillü gütitako (25. orr.).

Hamabostgerren kapitülia: **Büriaz.**

Nork ere beitu büria handi eta biribil, natüralki diskret dira iakintsu (sic), segret, leial, injenus, traillazale bena kanbiakor.

Nork ere beitu büria lüze eta begitartia handi ordenariti kanpo, simple dira, malezius, bano, inbidios eta mardailer eta berri karreiar.

Nork ere beitu büria üsü erabilten, indiskret dira, inkonstant, inganazale, bano, simple eta gaizki arrazonable.

Nork ere beitu büria gizen eta gora, jeloskor dira, koraius, segret, atrebitü eta ez hanbat ahalke.

Nork ere beitu büria txipi eta lepoa mehe eta mihia (ere) bihotz flakü dira, indiskret, abil, pürfüdius, kontseillü huna bena fortuna güti.

Hamaseigerren kapitülia: **Lepoaz.**

Nork ere beitu lepoa xuri, natüralki lotsor dira.

Nork ere beitu lepoa mehe eta ahül, lotsor (26. orr.) dira, flakü bihotzez, kanbiakor eta sinheskor.

Nork ere beitu lepoa mehe eta lüze, hoinak ere lüze dütüke, kanbiakor dira, inbidius eta ez hanbat segret.

Nork ere beitu lepoa labür, jakintsü dira, abarizius, segret, kanbiakor, airus, diskret, injenus eta bakia maite.

Hamazazpigerren kapitülia: **Espaldaz.**

Nork ere beitu (sic) espaldak mehar eta ahül eta txipi natüralki lotsor dira, bakezko eta traillü gütitako.

Nork ere beitu sorbaldak erdian kopa, barerat, abil dira eta segret, enjenus eta tronpür.

Nork ere beitu espaldak ejer plain ta bilo gabe, modest dira eta bakezko, abarizius eta kanbiakor.

(27. orr.) Nork ere beitu espaldak ordenaria beno handiago berant oritzen dira gaizer, bena bolontrus dira, abarizius, faltsü eta traidore.

Nork ere beitu sorbaldak gora, kanbiakor dira eta ahalkegabe, trüfaler eta simple.

Nork ere beitu espaldak bilotsü ahül eta gora natüralki ahalkegabe dira, malezius, abere, entelegü gabe, flako eta traillari gaisto.

Nork ere beitu espaldak gizen, azkar dira azkar, berantiar eta injenus.

Nork ere beitu espaldak mehats eta gorderik, lotsor dira, trüfa egile eta sinheskorra(sic).

Hamazortzigerren kapitülia: **Besoak** (sic)

Nork ere beitu hain lüze beraku (belaiko?) dagoela, eskiak belanetara heltzen badütü, natüralki liberal dira, süperbius, atrebitü dira, bürü pensament(ü) apal eta manazale handi.

Nork ere beitu besoak labür korpitzari daukon beno (,?), ingrat dira superbis (28. orr.) atrebitü, armen adiskide eta orreki atzamantakoa.

Nork ere beitätü besoak lodi eta kanak handi eta aragitsü, presonitü dira, bihotzez (?) kora, kudizius eta sinheskor.

Nork ere beitätü besoak ejer malezius dira, jeloskor, luxurios eta memoria gaisto.

Nork ere beitätü besoak lis eta bilo gabe, sena handitako dira, memoria gaisto, finazios, inganio hanitz.

Hemeretzügerren kapitülia: **Eskiez.**

Nork ere beitätü eskiak labor(rak), lodi, simple dira eta nano, enjenü lüze eta traillaari handi. Nork ere beitätü ejer eta erhiak eta biloak labür, lüxürius dira, bano eta gezürti.

Hogeigerren kapitülia: **Bularrez.**

Nork ere beitätü bularrak lodi eta gora, natüralki azkar dira, atrebitü, süperbius, tirano, dilijent eta kudizius.

Nork ere beitätü bularrak erdian lodi, enjenü handitako dira, entelegü laster, kontseillü hunetako, jakintsü eta heina lüze.

Nork ere beitätü bularrak ejer eta (.), abil dira, liberal, zerbütxü egile. Lüxürius, koraius eta kanbiakor.

Nork ere beitätü (sic) bularrak plain eta ahül eta bilo gabe lotsor dira, segret, bizitze huna, bakezko, enjenus eta elestari pezi (sic).

Hoge eta bat gerren kapitülia: **Sabelaz.**

Nork ere beitätü sabela biribil, natüralki edale hun dira, jale ez hanbat, berant orhitzale, klinat gaisto bena leial eta koraius.

Hoge eta bigerren kapitüliaz: **Korpitzeko aragiaz.**

Nork ere beitätü korpitzeko aragia bera, natüralki flakü, bihotzez bena entelegü huna, memoria güti eta fortüna gabe.

Nork ere beitätü aragia gogor, azkar date, atrebitü, süperbius eta fortüna güti. Nork ere beitätü korpitzeko aragia xuri eta gizen ahazkor dira, ahalkor, beldürti eta arranküratü, bano gaitzeetan.

Hoge eta hirurgerren kapitülia: **Saihets-ezürrez.**

Nork ere beitätü saihets ezürrek lodi eta haragitsü natüralki azkar dira; fürius, apitobat erhoxe eta huregile da, bere(n) targutieti (?) fürius egiten beitära, zeren türbüratzen beitära eta simple agitzen eta berak jakintsü eta traillaari txar.

Nork ere beitätü saihets-ezürra mehats, txipi eta ahül bihotzak flakü dütie.

Hogetailaugerren kapitüliaz: **Azpi-büriaz.**

Nork ere beitätü (sic) azpi büriak handi eta ez bilo hanitz, natüralki lüxürius dira eta ez hanbat onest.

Nork ere beitätü lis eta bilo güti, kanporako altian eta azpiak mehats onest dira eta (arra)zonable.

Nork ere beitätü azpiak aragitsü eta gizen, natüralki azkar dira, arrogant eta süperbius.

Hogeitaseigerren kapitülia: **Belhañez.**

Nork ere beitätü belañak gizen, natüralki lotsor dira, bano, traillaari gaisto bena liberal.

Nork ere beitätü ahül, azkar dira, koraius, segret eta bigegile handi.

Hogeitazazpigerren kapitülia: **Zankoez.**

Nork ere beitätü zankoa(k) lodi eta gizen, natüralki segür dira azkar, injenius eta arrazonable.

GOIHARRIAK HERRI-SENDAGINTZAN

Duela hamahirur urte, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan aurkitu genuen argitaragabeko 117. zenbakia dakar "*Département des manuscrits*"an gorderik dagoena. Lan hortan, aurretik aztertu berri ditugun konplexioak eta fisiognomoniaz idazkiak daude, baina hemen ikertuko dugunak izenburu bitxia dakar "Segetü eta bertüte preziosa" eta "harri preziosak, harri preziatüak goiharriak" aipatzen ditu aldazkailearen hitzak erabiltzeko; badirudi, Donapauleko Bidave batek aldatu egin duela 1819.an eta Andrau Goihaneix Urdinarbekoa (Z.) jabea izan dela, garai batean idazkiaren dun.

Goiharriak sendagintzan erabiltzea bitxi irudi bazaigu ere, ez zaigu ahaztu behar XVIII. menderaino errege eta printzeek, aitonen seme eta burjesek ez zituztela holako harriak, bakarrik beren edertasunaren gatik erosten, eta "soinean edükitzen". Nondik etorri den jakituri hau gure herrira idazkiak salatzen du **Alberto Magno** erabili duela (eta ez Albert le Grand) Toledo, Felipe II. aipatzen ditu, jatorrizko erdal liburua urte haietan eginik izan baitzen; bestalde erakutsi genuen **Bulletin du Musée Basque** delakoan argitaratu lantxoan, erdal liburu horren eta Petiar azpi-euskalkiko züberotar testu hortaraino, **lapurtar itzulpen** bat izan dela (nonbait XVIII. mendekoa), lapurtarkada batzu gelditu baitira züberotar testuan.

Esku idazki hortan lau testu dauden ezkerro, besteak ere, agian, Alberto Magnogandik datoz; gero zenbateraino sartu zen sendakuntza hori Zuberoan? Nork bazuen goiharri erosteko "aski sos"? Halere denek eros zetzazketen harri arruntagoak aipatzen dira, hor, imana, marfila (sic), arrano harria.

Segetü eta bertüte preziosa..

Zoin beitära Harri imanaren bertütia(k) /46.orr./

Harri imanak badü bertüte bere ondoan erakartzeko bürdüñak eta aitxeiria (altzairua), harina (ondarra), olio eta besterik hanitz gaiza eta harri hunen bertütia lehenik Aristotelek ediren zien.

Bürdüña honkiten bada harri hunez ondoan ekarriren dütü beste bürdüñak; bardin honkitzen badük (sic) hamar erraztün bürdüñazko bata bestiari etxeki(rik) txilintxau (dillindan) edo egonen dütü /47.orr./.

Nor ere beitära jokietarat, xotiletzarat eginak, harri hunen bertütüz egiten dizü (sic) harri küriositate eta xotilaka, ueste beitära jentek debrien artez egiten dütiela.

Harri iman hunek badü bertüte **plagüen zerratzeko** eta **minaren** idekitek (kentzeko); orano harina xuria eta beltza algar ganik berhezten dütü eta balin **baratxuri batez** berekatzen badü harri haur, galdüren dü bere bertüte ederra.

Jazinto deitzen den harriaren bertütea

Jazinto harri haur hanitz koloretako da, bena berde edo gorri dira orotako hoberenak eta harri haur erraustürrik ahoan ezarten bada **helgaitzaren** kontre orano haur da: bereki edükiten badü aragiaren kontre harri haur **bihotza** azkartüren dero. Nork ere edükiten beitätü bereki begiratüren da **pozoatzeti(k)** eta **aire gaistoti(k)**.

Badü bertüte harri hunek **eroen sendotzeko**, malenkoniaren idekitek /48.orr./ fantasma eta bisione gaistoeren ohiltzeko.

Toledo kantian (ondoan) Bernardinoen komentian bada üthürri bat, Taiako herriberan behera dohen, ühaitziala (ibaiera) jalkiten beita eta deitzen beita "Jacinto", zeren hur zola estalirik beita **goharri** hetarik.

*Secretu eta Berthute preciosa
coin beitie. harri jmanaren berthutia
harri jmanac badu berthute bere ondouan
eracarteco burduigna eta achevia harina
oliosa eta besterie hanitz gaica) eta harry
hounee berthutia lehenic Aristoteleg
edirencien.*

*Burduigna honquiton bada harry
hounee ondouan ecarwendutu beste
burduignac bordin honquiton ladue
hamar erhastun burduinasco bata bestaria
etchequi chilinchaued egonen dutuc.*

Bidave, B.N. Paris (jarraipena)

Diamantaren bertütia

Diamanta da harri preziatü ororen gañeko bat bere indarra eta bere bertüte ederrak direla kausa eta biamanta (sic) fi izateko behar dü izan xuri eta klar, apittobat blü tiratzen die-la eta begiaren leiñuria bezaiñ argi.

Biamanta (sic) norc ere beitu edükiren bereki libratü izanen da **amets gaistoetarik** eta bisione eta fantasma orotarik eta **lotseria** (bildur) orotarik, balin biamanta (sic) fi bada.

Norc ere edükiren beitu bereki biamanta (sic) **begi-so gaistoetarik** libratü izanen da eta orano **inkantamentü** süerte orotarik eta pozoatzeti(k) zoin izkiribatzen beitu Poetak latizko berset huntan "**hic fulgat infadamas qui pectora sanet et prohibet miseris ultra domo veniunt**".

Hanitz balio dü **emazte izorrentako** hanitz periletarik begiratzeko eta **erditzean** hanitz ballatüren zaie.

Balin biamanta (sic) harri imanaren kantian bada, harri imanac galtzen dü bere bertütia eta indarra.

Balin bi biamant (sic) algarri jüntatzen badira, algarri lotüren dira azkarki.

Errege Españiako Filipe Hirurgerrenak bazian biamant bat zoin estimatü beitzen ehün eta hiruetan hogeï eta hamar mila dügat, edireiten den biamantik handiena da, hür handi bat bezala.

Biamanta ezin lantzen da beste harmaz beizik beste diamant batez, beste gaizak eztü beratzen eta bai ahüñaren odolac.

/50.orr./ Smeralda harriaren bertütia

Esmeralda balin fi bada kolore bat badü hain bakezkorik eta ederrik bistari emalten beitu kontentamentü handi bat, mündian diren soro eta berdüra orok beno handiagorik.

Balin Smeralda bi bada dio **Albertomanok** badiala hola-ko bertüte bat ezpeitü konsentitzen aharrarik gizonen artian eta senar emazte balin badira harri hona, batak edo bestiak betiere algar maite ükenen die.

Smeraldak badü bertüte nurc ere edükiren beitu berekin eztiela **emaztetarat gütziazirik** ükenen. Norc ere beitu Smeralda berekin **memoria** hona ükenen dü eta eztü **pozoaren** ez tempestaren lanjerrick (arrixkurik) ükenen. Izkiribatzen dü Arlande Eskolierak bere libürütik hain zühürki konposatian Geneban badela esmeralda bat hain handirik nola plat bat, ontsa begiratzeko beita erlikario batetan elizan, erlekia printzipala zoin platetan gure salbazaliak ostegün saintian aihari (afari) jan beitzian bere dizipülekien eta deitzen die **Paropside domini** /51.orr./.

Zafiro harriaren bertütia eta segretia

Zafiro eta rubi, bi harri suerte dira eta bertüte bat die kasi.rubi hura da gorri bizi eta argi; zafiro hura, zelü kolore, hanitz laidatia erremedioarendako eta erremedio segür **pozoaren** kontre.

Zafiro hunek badü indar **südürretako odolaren** baratzeko ezarten delarik südürretan. Zafiro hunek **begietako bista** erakarten dü ardüra berekatzen dielarik harri harez.

Harri hura ezarten badü mihipian nurc beitu fiebra (sukarr) handirik ematüren da fiebra.

/52.orr./ Bazahar harriaren bertütia

Harri hunek badü bertüte admirablerik zeren **pozu** orenen kontre hon da erraustürrik ahoan etxekiten badü.

Norc ere bereki(n) erabilten beitu, tristeziatik libratüren da eta **eltarün orotarik**, tristeziatik jiten badira.

Harri hunek **elgaitzak** sendotzen dütü, **kuarta ta meriana, pikota eta zürünpiak, tiñaren sarna, orenen** kontre eta eri ondoan erraustürrik eta harri haur bereki(n) dian **emazte izorra** aisa libratüren da eta **grabela** sendotüren dü eta **harriak** egoitzeraziten dütü eta **sügeen üsükiak** eta **hor errabiatiena** eta animal pekotsienak oro harri hunen erraustsaz kolpüetan ezarten badü eta berala edükiten dü plagetan kura miragarririk.

Karbundo harriaren bertütia

Karbundo harri hunek argitzen dü gaüz halako gisaz nun hura den /53.orr./ lekian ezpeita argi beharrik eta bertüte haur errezebitzen harri hunek ekia ganik.

Harri hunek eztü solamente **pozoaren** kontre balio, bena orano zonbait ontzitan bada ere pozoarik diskrütizen dü argiala hüillentzen bada.

Arranoaren harriaren bertütia eta segretia

Arrano harria deitzen da harri haur, zeren dio **Alberto Mano**-arranoaren aiñerak (andereñoak) (sic) bere habiala biltzen diela, haur, hümiak dütienian hazten eta harri hunen kolorea gatzaiña axialaren üdüri da eta harri hunek badü barnen beste harri bat, erabiltzen bada kordokatzen beita hürren bihotza bezala eta deitzen da beste izen batez **Harri-ikara**. Harri hura bereki(n) badü **emazte izorrak** aisa erdiren da; ezarten deiela azpian estekatürrik.

Harritto, zoin ere beita beste hunen barnen, harria erraustürrik edaten badü /54.orr./ hurareki(n) **seihetseko mina** berhala sendotüren dü hogoi (sic) eta lau oren beno lehen **hel-**

gaitz herenak eta laurgerrenak sendotüren'tü erraustürük edaten badü hotzaren jiteakoan, sendotzen dü **sabeleko mina** eta **xixariak ehaiten** errautsa edaten badü mahats ardoarekin.

Gagate, jaspe eta marfil harriaren (sic) bertütia eta segretia

Gagate harri hunek badü bertüte admirablerik eta estonagarririk (h)urean ezarten bada hiltzen da eta erraustürük emaiten bazaio **neskatila bati** edaterat, püntzela bada eztü **aurinarik** eginen, bestelan berala eginen dü.

Jaspe harrietan hoberena berdea da lepoan edükiten badü **xarmetarik** begiratüren da eta **emazte izorra** bertan erdiren da ezarten dielarik azpian (ixterrean).

Nurk ere edükiten beitü berekin jaspe harria eztü **bomitüren** (sic) itxasoan eta /55.orr./ betiere azkar izanen da.

Marfila da Elefantaren hortza eta hortz hura edükiten badü (sic) berekin **azkartzen dü bihotza, gibelerraiak** kontserbatzen emazteer beren **lili-xuriak** baratzen.

Pantaurak, Türkeska, Akatez harrien bertütia

Pantaurak harriak badü beste harri preziatü orok bezain bat bertüte harri imanak bürdüña bezala pantaura harriak beregana erakarten dütü beste harri preziatik oro eta nor ere harri haur berekin edükiren beitü ezin **pozoatüren** da eta begiratüren da beste harri preziatik begiratzen dien lanjer orotarik.

Türkeska harriak **erorterik** begiratüren dü eta lotsatzetik. Akatiz (sic) harri haur on da **bistarentako** eta aisa mintzatzeko eta **pozoaren** kontra. Akatiz harri haur berekin diena ezta orditüren.

Ainheraren harriaren bertütia eta segretia

Dio **esperimentazaliak** eta **Alpertomano-k** (sic) /56.orr./ aineraren bürüan badela (sic) bi harrito txipirik eta bata da gorri eta bestia xuri zoiñen bertütia beitira hoiek: nurk ere beitü harri xuria bereki(n) eztiela (sic) **egarriak** fatigatüren eta ahoan edükiten badü betiere ahoa fresk ükenen diela.

Dio, balin ihori **odola jauzten** bazaio eta harri haur lepoan ezarten bazario baratüren zaio, odola.

Orano badü bertüte **emazte izorrentako** aisa sortzeko arranoaren harriak bezala.

Dio orano ezarten badü harri xuri hau beire (baso) bat (h)uretan arratsan eta goizan edaten badü hur hura **lasterre-ria** emanen derio. **Gota** sendotüren derio, elgaitzak ere bai.

Dio, orano nork ere edükiren beitü bereki(n) aineraren harrigorria begiratü izanen da hanitz malüretarik eta gaitzetarik.

Eta Espaniolez deitzen beita aineru suerta bat "golondrina" beste bat "habiota" (sic) eztaikit nik zoin heben dagon golondrina eta zein den golondrina haur jakin ezazü üskaraz.

Nikolaus, astroite eta eliotrofi hiru harri preziatü hoiertütia

(Beste orrialdeak galdurik.)

Oh. 1. Imanaren bertuteak

Burdinaz kanpo badakigu nikela ta kobalta erakarten dituela imanak, eta beharbada kasu batzutan ondar mota bat

edo beste; bitxia da hemen agertzen den olioia: noski idazleak ez du forogatu.

Hasiera hortan zuberotar aldatzaileak edo, ez du agian, hitzez hitz itzultzen zeren eta behin zuka, bestean hika, bestean norikabeko aditza ematen baitigu.

Beste bitxikerien artean da, imanak, bere bertuteak galitzen dituela baratxuriarekin igurtzi egiten delarik.

Gero, Iman harriak **plagü zerratzale** "zauri hertsaille" eta **min kentzale** da. Ez zaigu aipatzen liburu zahar guztietan ematen zalon, **maite-mintzeko** indarra (sineste horrek **adamañte** hitzetik frantsesean **aimant** eman du herri etimonez, aimant "maitazale" ere baita). Sinbolikaren alorrean imana ezinihardokiaren ezin ulertuaren indarrarekin lotua dago, beraz kosmosaren erakarpina bezala da, lurreko edo zeruko maitasuna sortu lezakeana.

Oh. 2. Jazinto harria

Testu hortan da **goharri** agertzen harri prezios adierazteko. **"Edükiten"** eta **"helgaitz"** züberoeraz XVIII. m.koak dira, jadanik Etxahun - Barkoxe-k ez ditu erabiltzen, XIX. m.aren hasieran, gure aldatzailea, agian, gizon zaharra da, 1819.an aurreko mendeko euskaran idazten duena. **Azkartü** hitzarekin kontuz ez du **lastertu** esan nahí, baina zuberoraz beti **indartu, gotortu, sendotu**.

Oh. 3. Diamantearen bertuteak

Hemen lerrokatzen diren bertuteak, C. Leonard-ek Parisen, 1610.an argitaratu *Speculum lapidum* delakoan irakurtzen dira, Plinoren gandik harturik, amets gaistoak, xarmak, bildurrak (lotseriak), fantasmak izutzen dituela eta pozo guztietarik askatzen, eta axolbean uzten. Gure bildumak ordea, emazte izorren erditzea gaineratzen du, baina aipatu liburuko sendagailuak, urean eta ardoan diamante ipintzea gotaren eta minhoriaren sendotzen ez da hemen agertzen.

Bitxikeria zazpi bider **biamanta** idatzirik dagoela garbiki eta bestelan diamanta. Luma-gizon joko? Diamanta bi aldiz baizik ez baita irakurtzen.

Oh. 4. Esmeralda harria

Speculum lapidum-ean bezala emazteen ganako gutizia kentzen du eta memoria hobetzen.; baina hemen hasarrea urruntzeko, baztertzeke ematen zaion bertutea **Speculum**-ak, Safiroari ematen dio; ez ote da gure aldatzailea galduxe, atzetik baitatoz safiroarenak.

Duda batekin gaude ordea, Geneban ala Genoban den Gradal-aren esmeraldazko kopia hori; Kristoren azken afariko ontzi hortan bildu zen haren odola lizarmakilak saiheisa urratu zionean. Ipuin hau XII. mendean sortua, bi keltiko sinestetik dator

1. **Lantza bat** dago, **odolez beterikako** pertz batean zutik atxiki behar dena, hiltzen has ez dadin. Lantza hori Jesu-Kristoren saiheisa zulatuko duenarekin berdindu da.
2. Subiranotasun ontzia. Graal-a bezala nekez erdietsi litekena.

Hau zen goiharrietan ospetsuena, eta kasu askotan talisman; halere gure testuan ez da aipatzen **begientzat** on zela, eta horien gaitzak senda ta ezti zetzazkeala.

Oh. 5. Safiro harria, Rubia

Ez ote zaigo aldatzailea, bi gauzetan nahasi zeren esmaldari, aurreko lerroetan eman badio safiroaren bertutea, hemen safiroarekin esmeraldaren bista sendotzeko erremedioa agertzen da.

Gelditzen zaion bertutea sudurreko odolaren geldiaraztea da, eta aurretik hasarren baketzeko esmeraldari eman zitzaion indarra.

Kontuz kapitulu hontan Safiroa ta rubia nahasirik baidatoz, "hunek" dionean safiroa da ta hura rubia, beraz rubia-ri ezagutzen zaizkion pozoaren (edenaren) aldetik gerizatzea, ta helgaitzen galeraztea aurkitzen ditugu; halere bitxi da nola, gure euskaldunak antihemorragia bertutea safiroari ematen dion, Europan rubiari ematen zaiolarik.

Hiztegi aldetik, berrian darabil **fiebra** erderakada hemendik goiti beti **helgaitz** esango du.

Oh. 6. Bazahar harria?

Duela hamahirur urte eskuidazkia irakurri nuenean, erdaraz harri hori nola esaten zen ez nuen somatu; gero Frantzia, orduko jakintzaren aldizkari zen "*Le Journal des Savants*" delakoan, eta udaberrian, 1677.an argitaratu alean, seriooki hau zioten: bazela Asian harri bat **bezoard** izenekoa (parsi hizkuntzean, **pādzehr**, hortik portugésara igarota, **bezuar** moduan).

Aldizkari horren arauera Indonesian Makazar eskualde delakotik etorritako sendagailu hori, eden eta pozoiaren on da. Berriemileren arauera harri hau, animalien giltzurri, gibel, bihotz edo begietan sortzen da. **Bazahar** harriaren emaleak (euskal izena erabiliz, guk) behia, tximinoa, ahuntza eta antilopeak dira. Eragin berdinarekin edukitzeko, tximinoaren bi harri edo ahuntzaren sei behar da..

Harri horrek **Aegagrophile** izena ere omen du; faltsuak egiten dira, baina urean ipiñita urondora doatz edota urean desegiten.

Hemen esaten zaigun bezala sugeek ozkatutakoei bildurra kentzen bazioten, agian, psikoterapiak eta korrikaz has-teko orde baketzen baitziren, pozoiak bihotzeraino egin zezakean bidea luzatuz.

Gero sendatzen dituen gaixotasunen zerrenda nahiko luzea da elgaitzak (kuarta ta meriana); urruntxeago hobeki dio (laurgerren ta heren); sukar horiez kanpo pikotak (baz-tanga, nafareria) zürünpiak (elgorriak) tiña (zaragarra) eta tristezia (deprezioa?).

Oh. 7. Karbundo

Hau ere burdin eta aluminio oxidoa da. Erdaraz (fr. escarboucle, gazt. carbunclo) Garnata mota bat da baina askotan Erdi-Haroan rubiarekin nahastu egiten zen. Hemen, pozoetsai bezala agertzen bazaigu, eta argitzaile ilunpean, gure testuan ez da agertzen haren "begien sendotzeko" bertutea.

Oh. 8. Arrano harria

Aetita da Burdin oxido hidratatua. Arrano emeek beren kabiara biltzen zutena, errun baino lehen. Harri askoren moduan emazte izorraren erditzea lagun dezake, baina horrez gain sukar heren, laurden, sabeleko min eta xixariez sendatzen zaitu.

Oh. 9. Gagate harria

Izenak Agate gogoratzen du, baina urean dituen ezaugarriek jaspe-opalinoa dela ematen du. Bitxia da, arraroa da harri horren bertutea, birjina ez direnei txis eragitea. Zer da ba? Diuretikoala ala birjinatasunaren ezagutzeko "test" zaharra?

Jaspearen susmoa izan dugu baina harri horrekin batean, kapitulu berdinean dator.

Oh. 10. Jaspe harria

Indietako kaizedonia dugu, erdoilak gorritz tindatu edo berdez margotua; berdea da onena dio idazleak. Hemen emazte izorrenzat agertzeak, ez du andere horiek - merezi-mendurekin - daukaten pitxizaletasunaren señaile, zeren Asia ta Grezia gaindi Europaratu den eta jaspea erditzearen sinboloa bilakatu.

Harri horrek bere barruan besterik eman baitezake hortik etorri zaio bertutea, berak ere izorra baitira nahiz Jaspe nahiz aurretik ikusi Arrano harria.

Gero goitikaren, sendagailu izatea, sabelaren alde duen bertutetik etorriko da, ziur asko.. baina sineste hau berriagoa izango da, Aintzinatean ez baitute aipatzen.

Oh. 11. Bolia (marfila)

Gure aldatzaileak - baliman erdal liburua begien aurrean - **marfil** hitza erabiltzen du ez, frantses jatorrizko hitzik "ivoire" antzekorik. Nahiz dion elefantearen hortza eduki behar dela, ez dugu uste idazleak zekian, zenbat balio zuen ez eta zer heinekoa zen.

Bolia bera aldatzen ez den ezker, ustelgaitzaren sinboloa da eta hortik ematen zaio indarra, bihotza indartzen, eta birrikak kontserbatzen baititu. Kolorearen gatik ote ditu emazteen lili-xuriak (leukorreak) galeratzen?.

Oh. 12. Pantaura

Jaspe beltz mota da. Beste harrien ezagutzeko baita urrearen hukitzeko erabilia ere, horregatik beste goharrien bertuteak baditu, baita faltsuen ezagutzen erabiltzen ezker, pozoiren aurka ere.

Oh. 13. Turkeska. Turkesa

Hau Aluminio fosfata da, bere urdin berezia duena, elurraren urteak mendi urgaitzetako putzuei dieten margoa, turkeskatik esmeraldara doana.

Zergatik ez dugularik ikusten erortzetik eta bildurretik zaintzen zaitu harri horrek.

Oh. 14. Akate (Akatiz, Akatez)

Silizio agatea da, kaizedonia mota bat. Beste gehien moduan pozoietatik zaintzen zaitu eta mozkortzetik ere, baina bestalde begientzat eta hiztun ona izateko baliagarria omen da.

Oh. 15. Aiñera harria

Harri hau, Arrano harria, bezala da, barrenean beste bat dauka, emazte izorraren sinbolo den ezker erditzen laguntzen du.

Ainera harri hori txuria da eta horrek du, sudurreko odol-galtzeen, erditzeko nekeen, gogorria, (idorreria) gota ta helgaitzen aldeko indarra.

Barrenean daukan "harrigorria" izendatzen ez diren atsekabetarik eta gaitzetarik zaintzeko ona da.

Gero garbi dago erdal testua darabilala gure Etxabe horrek ala aurreko lapurtarrak? Nola nahi eztabaida bat sortzen du ainara hori ez ote den **golondrina** baino **habiota**? Habiota estraino hau ez ote da **avion** gaizki irakurria, gaizki entzuna?

Hortan bukatzen dira errezetak, baina izenburu bat ematen digu jarraipenik gabe eta izen gutxi ezagunekin.

Oh. 16. Nikolaus, astroite eta eliotrofi

Nikolaus hori ez dugu asmatu zer zen. **Astroite** ez dakigularik zer indar duen, **Astroite** da Manganesidun helenbergita, burdin ta kare silikatoa.

Eliotrofi, Eliotropia da, kalzedonia mota bat da, berde ilun edo gorbeltza, ontzi ederra egiteko erabilia baina osasunari zer egiten dion ez dakigu.

Harriak nola erabiltzen ziren?

Testu horren arauera, harri bat eduki daiteke jantzietan, larruaren gainean: lepoan, izterrean. Harriarekin huki liteke mina. Harria erraustu egiten zen eta urarekin edaten; edota harriak egondako ardoa edo ura edaten; harriarekin ere igurtzi egiten zen (begiak).

Erraustu egiten diren harriak naski errezenak dira Jazintoa, Arrano harria, Ainara harria, Gagatea, besteak garestiegi dira hortarako edo erraustu nekezak hala nola diamantea.

Harrien indarrak nondik?

Ikusi dugu nola itxurak, egiturak Arrano harria, Jaspea, eta Ainara harria erditzean erabilgarri egiten zituen, margoen sinbolika ere hor dabil, boliaren zuritasun galgaitza, diamantearen garbitasuna, rubiaren odol margoa. Badirudi hitz edo gauza bakoitzarentzat sema bereizi bat agertzen dela, gero animismuaren pentsabideez, edota Sendakuntzari, edo Edertiari, edo Esoterismuari beren sinboloak emango dituenak. Ez zutela eraginkortasunik? Hori beste gauza, errautsak "placebo" moduan egokiak ziren, eta talismanek beren psikoterapia zegiten ta itxaropena trinko eusten, sinesten zutenei.

Euskal testuaren iturri eta ez-iturriak

Hamabostgarren mendean Bigorrotar gaskoin batek gaskoin herrialde guztietan bildutako errezetak bere gaskoin hizkeltian jarri zituen eta Clovis Brunel-ek duela 32 urte argitaratu: hau izanki pireneotar errezeta bilduma zaharrena, bilatu dugu ea iturri berdinekoa zenez, ezen gaskoinezkoak baitu egite haundia, Proventzan eta Frantzian argitaratu zirenekin?

Euskal eta gaskoin bildumek izenburuan berdintasun bat daukate:

"Lo libre dels secretz aproatz"

"Segetetü eta bertüte preziosa"

Hortan gelditzen da antza, zeren harriak, goiharriak bana-ka hartuta ez baitzaie bertute berdina ematen beti.

1. Zafiroa

Berdintasun txiki bat bietan:

"Zafiro hunek **begietako bista** erekartan dū **ardūra berakutzen** dielarik harri harez"

"et gueris de **cop de uelh** cozy cozy que **hom lon toque soen**, e lo porta sobre sy" Err.392


Baina gaskoinezkoak ez du aipatzen, sudurreko odolaren geldiarazteko; eta sukarrandien ematzeko hauta dela.

2. Koraila

Ez da aipatzen euskaraz.

3. Esmeralda

Gaskoinez **maracde** deritzaio baina euskaraz, bai, pozoaren ta ekaitzaren babesle, jendeen arteko bake emaille bada, ez da holakorik agertzen gaskoinez.



4. Agate

Gaskoinak berriz ere harrien izendapenean euskarak baino beregisakotasun gehiago dauka, Agate-ari, **Cabmailh** esaten dionean, Huna zer dion gaskoin idazkiak hor lehen ta azkenez euskara baino zehatzagoa izanki

"Cabmaylh aytal vertut qui la mostra contra **tempesta**, l'encausa e qui lo porta sobre sy, lo creys en riquesas e lo garda de forsa en **plagz** en outras causas" gask. Err. 395.

Euskarazko esku-idazkian agertzen dena **gagate** izenarekin jaspe-opalina da eta agateari esaten zaio **akatziz**:

"Akatiz (sic) harri haur on da bistarentako, aisa mintzatzeko eta pozoaren pontra. Akatziz harri haur berekin dūana ez da **orditüren**".

5. Kornalina gask. erre. 396.

Ez da euskaraz agertzen.

6. Eliotrofi gask. Aliotropia

Euskaraz errezetaren izenburua baizik ez da agertzen. Gaskoinez majia beltzeko errezeta dago pertsoeen "caracta" bidez desagertarazteko oso konplikatu den gatubeltz ta ollarbeltz odolez idatzitako pergaminu batekin (ik. fotokopia).

7. Imana, gask. azyman, erre. 398.

Hemen gaskoinak dio eritasunak urruntzen dituela
 "...que non prengua malautia d'ome ni de hemna, per tan que treve am lor".
 Euskaraz berriz
"plagüen zerratzeko, minen idekíteko (kentzeko)da.

8. Ametista, gask. almarist. err. 399

Gaskoinez salbatu den perpauis puxkaren arauera moz-kortzetik gordetzen du. Harri hau ez da euskaraz aipatzen.

9. Kristal gask. 399. err.

Euskaraz ez da agertzen.

10. Beril

Gask. **baricles** bere edertasunaren gatik aipatzen da, euskaraz ez da agertzen.

Hortan bukatzen da gaskoinezkoa; euskaraz aipatzen diren Jazinto, diamante, bazahar, karbundo, arrano-harri, ainer-harri, jaspe, marfil, pantaura, türkesta harriak ez dira gaskoin esku idazki hortan ageri.

Beraz ez mamiz, ez azalez, ez zerrendaz, ez dira bi eskuidazkiak berdín, horrek zuzenesten gaitu esatera euskarazkoa, gaztelaniatik inspiratua dela eta iturri zaharrago bat duela, hots Alberto Magnoren liburua.

SENDAKUNTZA SINESTEEN IRAUNKORTASUNAZ ETA HEDAPENAZ

(Harri preziosak gaurko sendakuntzan)

Hedapenaren aldetik harri preziosen indarrez badirudi - diru eza gatik - sendabideetan, herria ez dela baliatu. Nork norentzat egin ote zuen errezeta bilduma hau? Ez Goihenetxe harginak, naski, ala hain aberatsa ote zen? Nola nahi ere holako senda-sinistek XVII. mendean eta hamazortziaren erditan ere bizi bizirik zeuden gizarte maila guztietan, ez bakarrik **Speculum lapidum** irakurleak ez baitziren herri-xumekoak, ez eta "*Le journal des Savants*" delakoak aholkatzen baitzituen hamazazpigarren mendean, baina baitakigu Frantziako eta Espaniako Korteetan, behintzat, sendabide eta zaintze arrazoen gatik hautatzen zituztela beren goharriak.

Non sartu holako jakituria ez bada, modernotasuna baino lehenagoko sendakuntzan? Jakintza itxura hartu nahi duen biologia eta sendakuntza ez zaigu ahaztu behar XIX. mendekoa dela gehienbat eta gure testua aldatzen den garaian, oraindik Louis Pasteur-ek ez dituela bere lanak egin; orduan zioten, bai, burdin-tutu bat oihal zarrez beteta, hartan **Berezko Sorketaz** saguak jaiotzen zirela ez aita ez amarik eduki gabe; beraz harri preziosen sineste hori, denbora haieran idaztea ez da harrigarri.

Aintziñatean denek goharriak erabiltzen zituzten, gizon-andereek, baina Erdi-Haroan emazteek baizik; gure testuan

ez da holakorik azaltzen, nahiz harri asko emazte izorren lagungarri izan; bestalde diamantea aipatzen den ezkeron on da jakitea 1476. urtetik landa hasi zela lantzen, horrek gure testuari urte muga bat ematen baitio.

Harri preziosak ez badira hainbeste erabiltzen Euskal Herriko sendaketetan ez du esan nahi ez zela egin eta ez zela jenderik gai ez zenik horien erosteko, naski Zuberoan Bela, Oihenarte ta holakoen etxeetan bazeuden; azken horren olerkietan andereek hain zuzen, **kristalezko** bekoki ta ahutzak (matrailak) **urrezko** adatsa, **zilareztatu** atzak, kolorezko ditiburuak, ta ezpainak, **boli-zotal** okotza daukate; ez bakarrik ederzaletasunez, baina nonbait Oihenarte aberatsa izanki Joana Erdoiko haren emazteak baitzituen, eta bere inguruan erabiltzen zirelako; halere Oihenarteren idazkietan ez da iñon aurkitzen goharrien erabilerarik sendagintzan.

Aurten 1988. urtea bukatzen ari delarik, ez da irratietan ez aldizkarietan iñor ez dakianik Ipar Ameriketako "sendakuntza berria" asmatu dutela, alegia sendabideetako harri preziosen erabilera; gure komunikabideetako asto ederrak miretsirik utziz: bai, goharriak egondako uretik gargalduz edo edanez erremediatzen dira moda berriko gaixoak, naski safiro, rubiek hortarako nagusitasun bereizia daukatelarik. Frantsesak dio "on ne prête qu'aux riches", horregatik ipar-amerikarrak lurzabaleko aberatsenak izanki, handik datorren guztia, berria eta ona da. Noiz iritxiko zaigu hori Euskal Herrira? Garai bakoitzak bere balorea talisman edo kutunen mailan agertzen du: Jakes Belakoak "*Tablettes*" argitaraga-beetan (ik. Pariseko B.N. ta Paueko Departamendu artxiboa) erakusten digu nola aintziña azkonara edo basapizti atzaparra zen kutun, bere garaian Zuberoan luma baten ardatzean zilar-bizizko hirur tanta. Otoitzak eta Ebanjelio zatiak ziren lehen, orain harri preziosak itzultzen.

Erromeroaren bertuteez, eta beste landare batzuz

(Bidaveren kopiaz)

Laurgarren testu hau nekazaritzarako errezetekin, baita jostetako, jolaseko bat edo beste batekin nahasian dator:

Erremolia (*Rosmarinus officinalis* L.)

(ikus "corpus"aren ondotik laburpena)

Heben hasten dira Erremuli belharraren berthüteak

Erremulitza da baratzean belhar bat zoin beita bere naturalezaz bero, konfortatzen beitütü korpitzeko menbreak oro, barnekoak eta kanpokoak oro, sendimendüak azkartzen, ümitarzünak konsomitzen hotztarzünak estomakekoak kargat (.) kontagü. senditzen den gaitz bat sendotzen, finalki tristeziak oro edekitzen bihotze(ko) kointak süitan.

Erremoliaren zainak eta axalak eta liliak orok beitütüe hanbat berthüte zointan eraman beitätügü eta ekarriren heben auktor honek aprobatürik beítira, lehenik Jinkoaren graziatako eta gero gizonaren zerbützüko eta profeitütako.

Nork ere Erramoliaren brankato (brukato?) bat hetarik janen beítü goizean ogiarekin eta gatzareki bürüko zelebriak azkartüren deritzo eta bista kontserbauiren (sic) eta azkartüren.

Erramoliaren lilia eta ostoak errhaustürik nork ere ezarriren beitätü aragiaren kontra edo larrüaren, eztü ükhenen zorririk, ez kikisorik (sic), ez pürnasik eta orano errhauts hura

edukitzen badü ezkerreko saihetsean larrüaren jünto bihotza alageratüren derio erremoliaren ostoa ontsa jorik eta plaga fresk batetan kuratzen da mirakülüski eta zerratzen.

Erramoliaren lilia eztiareki jaten badü barurik eta harekin ogia berotürrik osagarria eta hanitz gaitzetarik kontsolatzen.

Erramoliak akazatzen dütü animal puzuatsüak oro haren kheaz lanhastatzen bada, hun (on) izurriaren kontra eta gaitz kontajiusaren. Erremoliaren egürra ererik eta errhaults eginik hun da hortzen xuritzeko eta azkartzeko eta eztü ützen harik zozer (zedozer?) ez horitarzünik batere.

Erramoliaren lilia nahasirik eztiareki(n) eta edateko eginik hartzen badü goizan eta arratsan sendotüren 'tü gaitz üsätüak oro eta eritarzün orotarik begiratüren dü zoin jiten beilirate flematik eta hotzeti(k).

Erramoliaren lilia berderik edo idorrik sükriarekin nahasirik mahats ardu (sic) xuri drago bateki(n) goizan hartzen badü bihotzeko flakeziak oro destratzen dütü eta alageratzen estomakeko mina, sendotzen aizeak oro iradokitzen, bomiaria (oka, goitika) oro edekitzen.

Erremoliaren ostoa egosirik mahats ardu xurian aplikatzen bada edo ezartzen badü enplastü bergaren (pitoaren) ingürünetan kanetan (?) gañen grabela dienak berhala urinatüren da; balin emazteek hartzen badüe erremolia egosirik haren huraz xahatzen (garbitzen) phasüa eta lanastatzen petik gora kontzebitzeko preparatzen dira eta osagarria kontserbatzen.

Erramoliaren ostoa egosirik mahats ardu xurian enplastü ezarten bada almoranetan, sofri ahal bezain berorik, hirur egünez, hirurnatan sendotüren dira eta idortüren.

Balin badü ihork minik jentüretan imor haietari jinik busatzen badü erramoli egosi harez ontsa berorik jentüretan, bena hanitzetan egin behar beitu zoin nahi dien sendotüren dü.

Erramoliareki(n) mahats ardua egosirik, mahats ardo (sic) hartarik egiten beitu aigardent eta aigardent harez ükhüzten (ikuzten) badütü seña (?) eta kantzera sendotüren da.

Erramoliaren ostoa. Nork ere üsätüren beitu kanetan erran den ur (sic) hartarik edatera oherakoan begiratüren da hanitz elharzünetarik eta memoria hun beitiere hun ükhenen dü. Erremoliaren urra (sic) südürretan gora hartzen beitu ürrin gaistoa edekitzen dü, marfondia sendotzen eta südürrian diren plagak sendotzen. Erremoliaren hura ezarten badü beharrietan barnen minik badü hotztarzünetik jinik sendotüren da, zoinahi (sic) plagetarik harrik badü ere beharrietan erhoren (hilgo) deritzo.

Erramoli ostoa jorik ahoan edukiten badü barurik hats (arnas) gaistoa oro edekiten derio. Hortz haginatarik jiten bada.

Erramolia jorik mihipean edukiten badü nurk ere beitu mihia toldo imur flematsüak direla kausa berhala sendotüren da.

Berthüte haur bera dü Sobia-k eta orano hobe mintzatzeko enpatxü gabe zoinen berthüteak beitiere ezin hobeak.

Erramolia minagrean egosirik hun da hortz hagin kordoken gogortzeko eta haginetakoa mina sendotüren dü hur harez ahoa ükhüzten badü.

Erramoliaren ostoa eta axala ererik eta erraustürrik hun da hagin eta hortz gastatüren pürgatzeko berekatzen direlarik errhaults harez.

Emazte zoinek ere ezne güti beitu haurraren hazteko üsat beza jaterat erramoli ostoa eta lilia eta ezne hanitz ükhenen dü eta hun zeren odola pürifikatüren derio, bera ontsa ljestitüren (lijeriko).

Erremoli hura sükriareki(n) nahasirik goizan eta arratsan hartzen badü oherakun estomakeko mina sendotüren derio, egarria idokiren eta apetitü hun bat emanen derio eta aizeak oro idokiren.

Erramoliaren lilia edo ostoaaren errhaultsa mahats ardu hunareki(n) edo eztiareki(n) edaten badü sendotüren derio kolika eta odolezko heri gaistoa zonbat nahi zahar den.

Grabela erramoliaren erhaultsa edaten badü ardu xuriareki(n) barneko imur gaistoa oro konsomitüren dütü grabelaren harria desegineraziren dü eta urinatüren da.

Balin ihurk ere ezin baratzez phenatürrik badü zerbait flakütarzün dela kausa edaten bada erramoliaren (sic) ostoa errhaustürrik mahats ardu xuriareki(n) ardüra sendotüren da.

Erramoliaren ostoa eta zaina minagreareki(n) egosirik zankoetako minaren sendotzeko hun da eta bidean einherik (nekatürrik) ibiltez ere bai.

Nork ere jateko apetitüa galdü beitu jan beza goiz oroz biga edo hirur kopa erramolia egosi denean mahats ardoan kopatürrik apetitüa jinen zaio eta ber ontsa lotüren (lo egingo) da.

Nurk ere erramolia egosiaren mahats arduan begithartea ikhüziren beitu goiz oroz oihal buxi batez, eder izanen da eta txintilarik gabe.

Erramoli hura minagreareki(n) nahasirik büria bustatzen badü zikina oro junen (sic) zaio eta imur gaistoa oro eta bilhoa erortetik begiratüko.

Mahats arduari ezarten bazaio erramoliaren lilia barnen hanitz begiratüren dü eta bethi ere ürrin huna (usain) huna kontserbatüren dü.

Finaliki erramolia egosi ber huraz mainhatzen bada dioie autorrek edo deitzen düe gizonaren bizia, zeren sendotzen dütü jentüretako doloreak oro, menbreak oro azkartzen eta arraberritzen sendimendüak bizitzen eta nur ere üsätüren beitu hur harez bere büriaaren mainhatzen hilabetean (ilean) berritan sendotüren da gaitz orotarik.

Ezkiribatzen dü Arlande Bilenao-koak (sic), Figika Mazerik (sic) eta Gabriel Herrerak erramoliaren lilitik egiten dela hur bat mirakülüsik hura beita baltsamuaaren pare, dioie auktorek nork ere nahi beitu egin baltsamu hura erramoliaren lilia eta sasuetan (sasoian) anpola lodi bat betha dezan lili hartarik, thapa dezan ontsa li oihal batez gañetik ezar diez ontsa estekatürrik amurekatik jalki eztatik lanhorik kanporat eta gero ezar ezak gorotz athe batetan beroki barnen eta gero hilabeteren büriaan idoki ezak anpola hartarik eta ezar ezak anpola txipi batetan hur hartarik betherik eta anpola hura thapa ezak bestea bezala eta ezar ezak bestea bezala eta ezar ezak harri athe batetan barnen ekhian (eguzkitan) eta zerenan eduki ezak beste hilabetez eta gero idoki ezak eta eridenen dük erramoliaren baltsamua eginik eta egotz ezak hartarik txorta bat beire bat (baso bat) huretaren eta juaften bada zolala hura düke(k) (izango duk) egiazko baltsamua.

Baltsamo hunen berthüteak baltsamo huntarik ezarten badük zoin nahi plaga zaharri edo berriri sendotüren dük.

Baltsamo hunek badü berthüteak kolpü baten sendotzeko señalerik baratü gabe.

Baltsamo hunek badü berthüte bi txortola (bi ttantta) ezarten badü begietan khentüren dü begietako plaga, bista klartüren derio eta azkartüren. Untatzen badira menbre flakütüak eta zainak oro sendotüren dira.

Baltsamo hunek badü berthüte esküak edo bürüa ikara (dardara) dütienaren sendotzeko, zahartazünetik jiten ezpada eta bihotza alageratzen dü ezkerreko saihetsean untatzen bada.

Abertiadi irakurle küriusa begithartea untatzen badük hur hunez bethiere fresk eta gazte izanen iz (sic) eta begithartean üzürdürarik gabe.

Baltsamo hunek sendotüren 'tü jentüretako min suerteak oro hotzeti(k) jiten badira, finalki nurk ere beitü Kolika pasio-nea eta emazte zoin ere beitüke sabelean, untatzen delarik sabelean hur huntzaz mina dien leküan sendotüren zaio eta beste min hanitz suerterendako hun da.

Arlando (sic) Bile naua-ko bedezi (sendagile) handiak izkribatü dü segretü admirable bat eta profetus bat zoin mahats ardu berriaz eta erremoliaz egiten beita berthüteak diñe beitirade jakiteko, minek orok, dio Arlandok har ezak erremoliarren lilia eta ostoa eta ezar itzak mahatsardu berrian eta ützi (sic) ezak heraki artio mahats ardu hun harez zerbütixadi oro mahañean hartarik eta Arlandek eta kofesatzean segreki erakutsi zeriola Bolonia ziotateko moro filosofi medezi eta astrologo handi batek orano aprobaten dü Kosefo barber handi batek bere liburu medezinezko batez dioie Auktor hoiek balin ezpadü mahats ardu xuririk harrezak mahats ardu tinto hun batetarik dian ürrina hun eta ezarrizakok erremoliarren lilia eta ostoa eta erran den mahats ardu hun ezar ezak süian bertz batetan era herakierazi ezok kontsomi artio hirur phartetarik bat, aberti adi kantaro bat mahats ardorentako ezar ezak hirur libera osto eta lili.

Erran den mahats arduaren berthütea. Nork ere mahats arnoa (sic) üsatzen beitü edatera zombait drago goizan eta arratsen bethiere osagarri (osasan) ükhenen dü eta bethi ere gazte izanen da.

Mahats arnu (sic) huntarik edaten bada estomakeko minak oro sendotüren zaritzo hotzetik jiten bada edo kolera-ti(k) edo odoleti(k) edo flemati(k) jiten badira erran den mahats ardu haur hon da saietseko minaren sendotzeko hotzeti(k) jiten bada edo grabelaren harriti(k).

Mahats ardu huntarik nurk ere edanen beitü barurik edo askal ondoan estomaka pürgatüren derio eta kollika sendatüren derio mementean.

Nork ere jateko apetitüa galdü beitüke edan beza mahats ardu huntarik eta apetitüa jinen zaio mahats arnu (sic) hunen ürrinak konfortatüren dü bürüko zelebriak eta sendimendüak eta bihotza alageratüren.

Berthüte handirik eta ederrik dü mahats ardu hunek edaten dielarik goizan eta arratsan zeren korphitzeko (sic) (gorputzeko) menbreak oro azkartzen dütü.

Nork ere üsatzen beitü goizan txarpota batez berekatze-
ra arnu (sic) huntarik eta gero hurez xahatzen dielarik jakin beza bethi ere gazte eta eder izanen dela.

Mahats ardu hunez ahoa xahatzen düelarik hortzak kontserbatüren eta azkartüren zaritzo eta zer ere plaga ahal beitüke hortzetan eta hagineta sendotüren zaritzo eta bethiere hatsa hun ükhenen dü.

Fistola edo zoin nahi plaga sendotüren da mahats arnu (sic) huntarik xahatüz eta gero txarpota bat bustirik gañen ezarten düelarik.

Nurk ere beitateke flakü zombait elharzünen ondoan üsa bedi mahats arnu huntan eginik zombait kopato eta behala indarra ützüliren zaio eta **bihotza** alageratüren.

Balin mahats arnu haur hurtatzen bada odeletarik erorten den huretik eta edaten huntarik badü senda falta gabe zeren dio Maestre Zapata-k espermentatü direla hanitzetan eta dio orano badüela berthüte sendotzeko fiebra Kontinuerantako eta laurgerrenarendako.

Ontsa hun da arnu haur odol egoste düenaren eta odol-
lezko herigaitz, herigaistoaren sendotzeko.

Mahats ardu hunek badü berthüte pozoaren kontre edaten düelarik eta dioie auktoerek trakazia (?) ezin egiten dela mahats arnu huntarik gabe.

Mahats arnu haur nahasirik triagarekin edaten badü esküetako eta bürüko ikharea sendotüren derio orano emazte pasionatü zoin ere beiliz(ate) naturalizarentako minez eta orano hurik ezin ükheiten badü preparatzeko kontzebitzera.

Nork ere beitü gota sendotüren da mahats arnu hunetik edaten düelarik eta berekatzen min düen leküan.

Nur ere beita grabelaren süiet (sic) edan beza mahats arnu huntarik barurik urinatüren da ontsa eta harririk badü hurak kontsomitüren harritik haboro (gehiago) baratzera ezmeiren.

Eta orano nur ere amets handi egiten beitü edaten badü mahats arnu huntarik eztü batere eginen eta memoria augmentatüren derio eta tristezia idokiren derio.

Finalki mahats arnu huntarik edaten badü goizan barurik eta arratsan oherakoan aiharia (afaria) xothil egiten düelarik apetitüa eginen zaio, bihotza alageratüren, zelebriük konfortatüren, aisa urinatüren, menbreak oro azkartüren partikülarzki zaharrer indarra augmentatüren.

Laburzki: Orokorki Erromeroak gorputzak gotortzen, minak eztatzen, sentimenak (sentimendüak) azkartzen. Sustrai (zain) azal, osto eta loreak erabiliz.

1. Gordinik janaz edota eztiarekin, burmuin eta begiarentzat ona da.
2. Errautsak zomorro txarrak (zorri, arkakuso, zimitz) delakoak urruntzen ditu.
3. Zauriak zerratzen, hesten., osto errautsak.
4. Erromero keak bizidun kaltegarriak urruntzen.
5. Ezti edo ardotxuri edo asukrearekin, urdail bihotzentzat erabilgarria.
6. Ardotxurian egosi enplastua (almoranak, erreumiak, txisa debekuak).
7. Alkolarekin larruko minbiziarentzat.
8. Urarekin katarro ta aho-sudur garbiketendako.
9. Ozpinarekin egosirik (edo azal errea): haginmina.
10. Ardotxuri gehi "erremolea", harria sendatzen.
11. ik. Ozpinean egosita osto, herroak: oinetako eta zangoetako mina kentzen.
12. ik. Aurpegia burua garbitzeko, orbain eta bestez ardo gehi "erremolea".
13. ik. Errezeta luzea, Arlande Vilanova katalan medikuak erdi-haroan idatzia eta XVI. mendean baizik eza-

gutu ez dena, "erremole" baltsamoaren egiteko: (zauri, ubel, begi esku erreumeentzat)

- ur .. erromero lore: anpola batean zerra zimaurean, gorotzean ipini hilla bete

- ireki eta anpola txipiagoan sar, harri meta batean eguzkitan (hillabete) eta gau intzean (hillabete).

14. ik. Arlande Vilanova-ren bigarren errezeta erromero-ardoa da. Lore eta ostoeekin egina. Hirur libra ostolore "kantaro bat mahats ardorentako" eta gaineratzen du "baldin ezpadü ardo (t)xuririk harr'ezak mahats ardo tinta" (sic). (Odolaren, urdailaren, larruaren edertzeko sukarra, harriaren kentzeko, buru eta sentimen ihardunen laguntzeko erabil ditekena).

Hona gutti gorabehera berriro oso modatan jartzen ari den belarraren aintziñako bertuteak. Erromero urari XVIII. mendean Hongriako Erreginaren ura zeritzaion, harekin sendatu omen zelako. Gaur ezagutzen zaizkion bertuteak gure zerrendan daude: flakuen sustagarri, oroipenarentzat on, nerbio sistemaren aldekoa da, baina urdail, larru, erreumia, hagin, arnas, zauri asperraldi eta gernu debekuetan erabiltzen da.

Dituen kimiagaiak: esentzia olio, organo-azido, heterosido, saponosido, kolina, bertute horien iturriak dira.

BESTE ERREZETAK, ZERNAHIREN ARTEAN NAHASIRIK ATERATUAK.

(Errezeta horiek, Aintzinateko sendagile ospetsuen bermearekin emanak dira eta gehienak beti "Alberto Mano"-ren gandik hartuak).

Armodaren (sic) erremedioa

Balin baduc alboronarik / Balin badük alboronarik har ezak belhar bat zoin deitzen beita españolez **Quinquifoliumeur** (sic) zointan belharto bat ostoareki sortzen beita kasi azekia (sic) orotan eta ezar ezak bulharretan haragia honkiten diela eror eztaiteken bezala belhar hura idor bezainbat almorenak (sic) idortüz eta sendotün joanen dütük, bena hobeki idortüren dütük idi berga errhaustürük ezarten badük.

Emazte izorrek aitzinean dien platetik ez jateko segretüa.

Izkiribatzen dü Florentino-k barazkaritan edo askaritan edo noiz nahi den zoin ere platetarik, jaten beituë plat haren pean ezar ezak haiek ikhusi gabe, **Brasilla belharra** plataren pean eta ziok, plat hartarik eztüe janen zoin ere beitateke izorra.

Lozerrek ez usikiteko segretüa

Izkiribatzen dü Mikaldo-k har ezak **Malba** eta haren hura olioareki nahasirik busta izak esküak eta begithartea eta ez aie usukiren eta belhar hura freskürareki heureki (sic) etxekiten badük erlek ez aie üsikiren edo lozerrek usikiten bahaue olio huneti(k) ezar ezak eta e'hiz hantüren eta berhala sendotüren dük.

Sügeak üzten dien larrüaren berthütea

Sügearen larrüa errerik eta errhaustürük ezarten bada zonbait zauritan gañen sendotüren da eta balin badü barnen zonbait elhorri edo eskail idokiren dütü.

Abertiadi nurk ere edükiten beitu bereki sügearen larrüa errerik haren errautsak begiratüren lepratik eta pozoatzetik.

(**Nere oharra:** Goizero Baionatik Donostiara doan autobusaren gidari begi urdina züberotarra da Mintikilekoa, Espil Uthüralde etxaldekoa. Hola 1989.ko Apirilaren 5ean Donostiara nindoan eta harek Pasaia aldean trafikoaren hesitugunean hartuak ginelarik zübereraz kontatu zidan:

- Eta zük eztaküzü zer egiten günian gazte denboran elhorri bat erhitik sartürük günianin?

- Ez.. ixkillima batekin zertzen?

- Ba, hori axala-axalean zelarik, ederki bena barnago sartürük zunealarik edo ezinez . süge larrü bat biltzen ginizün..badaküzü urthoroz sügeek galtzen düen larrü hetarik ..eta hura olioan trenpatürük, erhia hersatzen ginizün eta oihal puxka batez üngüratzen).

Süge larruaren erabilera hori aberentzat Mongongo Dasantzak ematen du, Idiaren eztula gatik eta Barkoxe Peillen-enean aurkitu errezetak ardien nafarrerria sendatzeko ematen du, biak XVIII. mendeko errezetak. Tx. p.)

Segretu bat heri gaistouaren edo lasterreriaren / **Segretü bat heri gaistoaren (sic) edo lasterriaren sendotzeko zonbat nahi tenpora lüze düan.**

Lasterriaren sendotzeko hau da medezina balius bat nur nahi beita har ahal beitiro (baitezake) zoinetan hanitz mündük borogatü beitu eta sendotü eta haien artean ni nihaur sendotü beiniz zointan haren berthütek merexi beituëkeie izkiribatü urrezko leteretan rezeptak (sic) haur gisa huntan egiten düt lehenik har ezak **Plantai(n)a** laudenerena by ancren? idorra eta herakierazi ezok ave maria bat erraiteko denboran eta hur huntan ezar ezak ontza erdi bat "**xarauce de murtons**" (jarabe de murtones?) eta ontza erdi bat "**xarauce de roses**" (jarabe de rosas) eta beste ontza bat "**xarauce (de) menbril(l)os**", horiek edirenen dütük paltzeretan zoin oro nahasirik bero itzak eta noiz nahi har itzak, solamente aitzineko hirur orenetan ezpeitük deus behar jan, ikhusiren dük feit miragarri bat; haur eginen dük hirur egünetan hiruretan eta diot egia handi sendatü izan dela aldi bakoitz eta baratü laster eria (gaixoa) eta nahi badük konfortatü estomaka bereka ezak **Amoztigaren olioaz** Balent(i)anoek deitzen beituë **maizterra**.

Azazkülüen eta bilhoen beti labür ükheiteko segretüa

Azazkülüen eta bilhoen labür ükheiteko motz itzak (e)stirapenean (beherepenean) eta argizagia izan dadin egün heetan "caneroren" (Canceren) eta Picisen eta Eskorpionen finoan, faseu hartan muzten badütük bethiere labhür ükhene dütük.

(Gure oharra: Zodiakaren sinesteaz euskarazko lehen aipamena ote hau?)

(Lurlanerako errezeta zerrenda bat tartekatzen da Alonso Herrera baten liburuan irakurria eta berriro medikuntzaz hasten, 73. orrialdean)

Beguietaco minaren erremedioa. Dio Erramec har eçac/ **Begietako minaren erremedioa**

Dio Errame-k harezak **oillarraren gibela** eta Xaradonaren (?) hura eta ezti apitobat, trenpa itzak apitobat eta harez unta itzak begiak eta bista jinen zaik.

Dio orano har deza (sic) **Apioare**n hura eta ontsa jorik hura idoki ezok eta har ezak **mahats arnu** (sic) xuri hun batetarik xorta bat eta nahas itzak algarreki eta apürtobat pausatsera ützi ezak eta begiak xahatüren deritzak mirakülüski.

Beharriko minaren sendotzeko erremedioa

Dio Auicena-k har deza **Erramü** ostoia jorik, haren **hura** eta ezar (ahal) bezain barna eta entzütea galtzen badük erakarriren daik.

Dio Auktor hunek berak har deza **Kanela** eta ezar deza **olio arrusatüan** (?) eta gero ezar ezak beharrian eta sendotüren zaik beharriko mina zoin beita medezina orotan gainetil(k).

(Mal de terre) Erorteko minaren erremedioa

Erorteko minaren sendotzeko dio Sisto-k har ezak **hartzaren gibela** eta trenpa ezak hurean eta **hur** hura eman ezok edaterat eta sendotüren dük.

Dio orano **Bohorarren ezneti**(k) edaten badü sendotüren dela.

Dio orano har deza **oillarraren gibela** eta jo itzak eta trenpa hurean eta gero edan ezak **hur hura** sendoren iz (sic) bena begiraik bederatzü egünez hurik ez edan.

Sabeleko minaren erremedioa

Dio Dio(s)kor(i)desek har ezak **otsoaren tripa** eta erra ezak eta **errhauts** hura eman ezok edaterat eta mirakülüski sendotüren dük.

Dio Irame-k (?) eman ezok **Oreinare**n **adarr**a errhaustürik edatera zortzi egünez eta sendotüren dük sabeleko min orotarik.

Xixarien erhaiteko erremedioa

Dio Irakasleak, har ezak olio, minagre txorta bateki(n) nahasirik eman ezok edatera egünaz eta hilen dütüx xixareak.

Dio Giraldo-k, har ezak **arhamenta hura** eta **ahüntz ezneareki**(n) nahasirik edan ezak eta hilen dütüx xixareak.

Emazte titietan, min düenaren erremedioa

Dio, har deza **li azi** apurto bat eta jo ezak eta trenpa olioan eta ezar ezok enplastü thitietan gainen eta mehatüren zeritzok.

Dio Diaskoridios-ek (sic) balin plaga balin badü har ezak **ahüntz babaka** (gorotz) saldako bat eta egos izak **olioan** eta **mahats arnuan** eta hartarik enplastü bat eginik ezar ezok thitian gainen sendotüren dük.

Dio Constantino-k har ezak **babaren irina** eta **arraultze xurinko** algarreki(n) nahasirik egin ezok enplastü bat eta ezar ezok titietan gainen, berhala sendotüren zizotz (zitzok?) thitietako mina.

Erorteko mina

Dio Au(i)cena-k nun ere lehenik gaitz hunek hartüren beittü ihur ere, konpañian ordüan badü, lehenik ordüan idoki ezok (ken ezaiok) **ezkerreko oskia** (zapata) eta berak ezpadü idok'ak oskia eta **aurina** egin ezak oski hartara eta eman ezok edatera eta gaitz hura etziok haboro jinen eta jaikiren dük berhala.

Dio Esperimentazaleak atzaman ezak **sator bat** eta ezar ezak thipika berri batetan barnen gañetik orhe buxi batez tapatürük lanhorik jalki eztakion bezala eta ezar ezak süez flaman edo labean eta idortü denean errahuts ezak eta har edaterat saldan edo hurean eta sendotüren dük

Finis coronat opus.

Bidave

J'appartiens au Sieur Andrau Gohianeix maçon à Barber, Ordiarp, donné le 6 Février 1819

Bidaveren bildumaz balorapena

Irakurketa. Bidave-k kopiatu eskuidazki honen azkenean aurkibidea eman dugu, "taula" dio aldatzaileak, eta gaiak alfabetoaren ordenean ipiñi ditu, ez orrialdeen zerrendan. Hor ikus liteke geuk ikertu eta fotokopiaz ematen dugun testua, laurogei orrialdeetatik, hirurogei ta zazpi direla; beraz **hamahirur orrialde ez ditugu hemen ematen** eta oinarrizko zenbakien arauera, hauek:

- 1.ik 60-67. orrialdeak, nekazaritzarako errezetak ematen direlako.
- 2.ik 69.73. orrialdeak. Nekazaritzarako errezetak eta haurren eskolatzen laguntzekoa, irakurt ditezke.

Gai horietaz jakin nahian legokeanak, Baionako Euskal erakustokira jo lezake, hain baitago, 117. eskuidazki horren fotokopia osoa, Baionan.

Nahiz Erdi-Haroko ta Aintziñateko sendagileen autoritearen babespean edo itzalpean agertu, sendaketa batzuk sorgin kutsua daukate. Huna beraz lan hortan agertzen diren jakintsunen izenak, nolapait Bidave-k aldatuak:

- **Anicena Aucena**, zuz. Avicena (Bidave-k begien aurrean Auicena, u eta v bereizten ez zenekoa, ar. Ibn Sina 980-1037).
- **Bilenao Arlande**, Bilenua Arlando (?) 1235-1313 katalan medikua, fr. Arnaud de Villeneuve haren obrak, lehenbizikoz 1504 Lyonon argitaratuak.
- **Constantino**, (gaztelaniako itxurapean) Constantinus Africanus, Tunisiakoa, 1015-1087 Italian arabeen sendakuntza sartu duena.
- **Diacordes** (sic), Dioscorides, zuzendua Dioskorides (I.en mendekoa) Zillizian jaioa; bere sendakuntza liburua, grekeraz 1499. urtean eman zen berriro. (botanista zen gehienbat).
- **Erram**(e) (?) Irame?
- **Figica** (?): fisikalaria (?) hitza laburtuta (ik. macer)
- **Florentino** (gaztelaniazko itxurapean)?
- **Giraldo** ?
- **Herrera** (Gabriel) Izen hori agertzen da sendakuntza errezetan, baita hemen eman ez ditugun nekazaritzazkoetan ere, eta hor liburu egile bezala; beharbada Bidave-ren bilduma hori Herrera delakoaren bi liburuk inspiratua izan da. Beste leku batean Alonso Herrera izena jartzen dio.
- **Macer .. figika macer** Macer latin deitura da baina poeta batez eta general batez kanpo ez dazagu iñor.
- **Micaldo**, Misaldo (Miscaldo)?
- **Porta** (Baptista) ?

- Sisto (Sixto) ?

Bi izenordeko deiturarik gabe datoz Iraca(s)le, eta Esperimentaçale., ez dugu zulatu nor diren?. Aipatzen den barbero bakarra Cosefo, (?) bat da, ez dugu haren aipamenik iñon aurkitu.

Eskuidazkiaren iluntasun, oker, huts ta beste ezinirakurriez

Erromeroaz bildu errezetak, aski argi baldin badira, eskuidazkiaren 57. orrialdetik goiti gauzak lausotzen dihoaz, diareea sendotzeko erremedioen artean berak **xarauce, xerauce** izeneko "jarabe"ak aipatzen ditu denak oraindik hortarako erabil ditezkenak, baina bat "jarabe de murtones" zer den ez dakigu? Bitxi amoztigaren olioari (?) katalan izena **maister** ematen bait dio.

Begietako minaren erremedio idazten digu "charadonaren hura" Zer da Xaradona? Ala frantseskada bat "chardon", Zuberoan denek **garde** deitzen dutena gatik egia da gardea antiseptikoa, eta antalgikoa dela.

Esaldi ilun bat dago bere grafiaz: "ahuez babaca saldoco bat", **babaka** ardi ahuntz mokordoa delako ahuez (?), **ahüntz** ote?.

Diarrearen erremedioak aipatzean "plantaia laurdenerena by ancren idorra", agian plantaina laurdenerena **bi ankren** (!) idorra.

Errezeten balioaz

Süge larruaren erabilera lepra eta pozoinen aurka ez zaigu ziurra irudi, gero zauritan eta arantza idokitzeko saiok egin behar eta ikertu, keratinak zerbait egin dezakenez.

Lasterreria (diareea) beti arrosa edo irasagar urekin eta plantaina tisanekin senda diteke, eta errezetak balio du.

Azazkalen mozteko garaiaz diona sineste hutsa da, baita haginaren sendatzeko musker edo sugandila errautsa ere, hala nola erorteko minarentzat sator erre errautsa.

Begietako minarentzat, apio hurak edo ardoak balio du beti; oillarraren gibelak sorgin sendagailu dirudi.

Belarritako minarentzat, erramüa, **erreñotza** egoki da antiseptiko eta antalgiko baita. Kanelaren bertuteez ez dakigu ezer.

Erorteko minaren sendatzeko, irudimena nagusi da, edozein gauzak balio du: hartzaren gibela, sator erre errautsak, behorraren esneak, oillarraren gibelak, baina bitxiena Avicena-k dion txisa eradatea ezkerreko zapatan.

Xixarientzat, arhamenta (menta) erremedio ezaguna da olio-ozpin nahasketaz ez dakigu ezer.

Andere diti minentzat liño-aziz egin enplastua baliagarri zaigu, ahuntz babaka hori bitxiago; baina serioago babaren irina, eta arraultzeaz egin enplastua. Baba, berriz hemen agertzeak, "ahuez babaca saldoco bat" beste modu batera irakurtzera garamatzi, alegia "ahuntz-baba (baba mota bat) saldako bat"

Hona grafia ederreko kopiatzaile ezaxol honen huts gehienak, ea norbaitek hobeki irakurtzen duenez? Gauza bitxia da nola zuberotar testu bakarra den **xarauze** "jarabe" esateko erabiltzen duena, den ez du aspaldi kente hortako hitza **xarabiko** "laudanum" jarebea esateko erabiltzen zela.

ALTHABEGOITY-REN ZIBEROKO BOTANIKA (XIX. m.koa)**LANTAREEN JAKITATEA**

Bai bada jakitate hori; bena geroago txipitzenago ari da. Hitzen erdiak ez dira ezagütürrik, orai, berrogei urtez peko jenteez. Izan da Eüskaldüna, hogeitahamar urte hontan laborari zaharren entzün lantaren izenak bildü düttiana eta ez ahazteko ezkiribüz hartü düttiana. Egün, arren, ez üzteko galtzera, hasten da izen horien herrokatzen **Eüskaldün** kazetan, otoizten dü, horren nausia, honhar dezan bihotzez oberendatzen deron lan txipi hau. Hitz horiek oro zaharren ahotik elkirik dira. Biltzaleak eztü mereximentürrik, biltzeko pazentzia baizik, eta, lagün huneki(n), frantses hitzen edireit-tekoa baizik. Uste dü badela orano haboro biltzeko, nahi bada baden hanitx ere galdürrik.

Eüskaldüna ohartzale da: zerk hun edo gaitz egin deron eta halaz izentatü dütü lantareak; batak: **Xixari belarra, Odol belarra, Arrestelü belarra**. Besteak beren itxüretarik: **Axeri büztana, Idi mihia, Gatü bixarra**; zombait beren lilitzeko sasutik: **Bedats lilia, Domesantore lilia**. Eta orano edireiten diren lekütik: **Komentü lilia, Andere mahatsa**.

Jinkoak lantare bakotxari eman dü bere poterea sendotzeko edo eritzeko. Minaren kantün ezarri dü orotan belar sendozalea; ezagütü behar beita salbü Jinkoaren dohaiña.

HASTE

Absynthe.- **Xixari belarra, Axintxo**

Hola deitürrik zeren horreki egin tisana edo horrekin egin ardoak libratzen beitü xixaritik. Ezagütü dü gizon zahar bat, eri, estomakin pezü handi bat; Barberak etsitürrik. Aizoko ostalersak beitzakin sendon maite ziala **absinta edaria**, hil gabe azken plazer bat egin behar z(i)ola, edanerazi zeron godalet bat. Eriak ondotik urtuki zien pelota bezalako **xixari** ate bat. Goizan oliatüa, arratsen sendo zen.

Aigremoine.- **Lapatiña xehea**

Hori da Damnatuak manatzen di(a)n **tisana** geia, **erorie-tan**.

Ail.- **Baratxuria**

Beste ordüz haurrak arristirí askariten ziren **ogi** belar (sic) **baratxuristatürrik** jatez. Hatsa memento bat gaisto, bena sekülan **xixaririk**. Bürüak handi eta beti gose. Orai aldiz? Üsü txar eta denak xixari.

Lehenago, orano, **saihets püntak** zirenean, hers' baratxuri ixter bat zapatüz, orai potikaideko paper piperstatüz.

Androseme.- **Orkatz ostoa**

Ostoa oliun trenpa eta **zauri zahar** baten gaiñen hers': sendo.

Bouillon blanc.- **Builublan** (sic)

Liliaren tisana **marrantaren**, oihalean iratzirik.

Bourrache.- **Murruña**

Osto eta liliak tisana hona egiten dü **marrantan** eta eztü **zahartüan**.